

2019ko EKINTZEN BILDUMA



© Olivier Houeix - « Rendez-vous basque » ren hirugarren edizioa, Miarritze, 2018

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA.....4

1. KULTURA ONDARE IMMATERIALARI BURUZKO IKERKETA ABERASTU EUSKAL ETNOPOLOA LABELARI ESKER.....6

1.1. Gogoeta guneak animatu.....6

1.1.1. Ahozketasunari buruzko mintegiaren antolaketa.....6

1.1.2. *Tradizioa eta berrikuntza: identitatea denboran zehar* kolokioaren antolaketa.....6

1.2. « Ondarea – Sorkuntza » ikerketa-ekintza garatu.....7

1.2.1. *Zapat(h)ari*, Hazparneko zapatagintzari buruzko proiektu antropologikoa eta artistikoa.....7

1.3. Ahozko ondare immateriala bildu eta baloratu.....8

1.3.1. Eleketa programaren segipena.....8

1.3.2. Inbentario fitxen gauzatzea.....9

1.3.3. Ipar Euskal Herriko soinu et ikus-entzunezko artxibo zaharren tratamendua.....9

1.3.4. Alemaniako euskal presoaren grabaketaren balorapena.....9

2. EKE-REN ESTRATEGIA NUMERIKOAREN GAUZATZEA SEGITU..... 11

2.1. Euskal Etnopoloa labelaren ikerketak eta gogoetak hedatu.....11

2.1.1. Mintegien eta kolokioen bildumak sarean ematea.....11

2.1.2. Aktualitatearen hedapena numerikoaren bidez.....11

2.2. Ondare datubaseetarako sarbideak erraztu.....11

2.2.1. Mintzoak.eus ahozko memoriaren atariaren garapeneren segipena.....11

2.2.2. SOKA erakusketaren edukien katalogoa sarean ematea.....12

2.2.3. Kultura ondare immaterialaren kontsultagunearen kudeaketa.....12

2.2.4. EATB fondoaren numerizatzea.....13

2.2.5. Gogoeta kolektiboa dokumentuzko baliabideen eskuragarritasunaz.....14

2.3. Eduki numeriko eta editorializatuak ekoiztu eta partekatu.....14

2.3.1. Eleketa fondoak baloratzeko baliabide ibiltarien sorkuntza.....14

2.3.2. eke.eus webgunearen arraberritzea.....15

2.3.3. « SOKA, euskal dantzaren urratsetan » erakusketaren ibiltaritzaren bukaera.....16

2.3.4. SOKA « Transatlantikoa ».....17

2.4. Kultura aktualitatea bateratu eta baloratu.....17

2.4.1. eke.eus webguneko agendaren garapena.....17

2.4.2. Sortzaileen ikuspuntuaren agerian ematea.....17

2.4.3. EKE-ren eta bere partaideen berrien hedapena.....18

2.4.4. Komunitate animazioa sare sozialetan.....18

2.5. Lankidetzak garatu ikerketa-garapena alorrean.....18

2.5.1. ESTIA-ko ingeniariak eskolarekin partaidetza.....18

3.	KULTURA ALOR ETA EKINTZA EZBERDINAK LAGUNDU LURRALDEETAN.....	20
3.1.	Alor ezberdinen egituraketa eta garapena lagundu.....	20
3.1.1.	Euskal zinema.....	20
3.1.2.	Publiko gazteari zuzendu arte eszenikoak – 2019ko KIMU programa.....	21
3.1.3.	Euskal antzerkia – Ibilki programa.....	22
3.1.4.	Euskal literatura – Gazteluma saria.....	22
3.1.5.	Euskal kantua.....	23
3.1.6.	Euskal dantza.....	23
3.1.7.	Euskal musika eta dantza – Ohiko euskal musiken eta dantzen baliabide guinea.....	27
3.2.	Lurraldeak aholkatu.....	27
3.2.1.	Euskal hirigune elkargoaren laguntzea euskal kultura eskumena plantan ezartzeko.....	27
3.2.2.	Kultura politika publikoen sostengatzea.....	27
3.2.3.	Kultura praktikak: inkesta baten ekoizpena Euskal Herri osarako.....	28
3.2.4.	Kultura eskubideak integrazioa politika publikoetan.....	28
3.2.5.	Hirien laguntzea kultura programazioetan.....	29
3.2.6.	Partaidetzen segipena egitura labelizatuekin.....	31
3.3.	Euskal kulturari sentsibilizatu.....	32
3.3.1.	Arte eta Kultura Heziketa.....	32
3.3.2.	Heziketa irudiari – Zineskola dispositiboa.....	32
3.3.3.	Euskal antzerkia eskola ingurumenean.....	33
3.3.4.	Euskal kulturaren eguna Kontserbatorioko irakasle et ikasleentzat.....	33
3.3.5.	Euskararen eta euskal kulturaren integrazioa irakurketa publikoaren sarean.....	33
3.4.	Mugaz gaineko lankidetzaren eta euskal kulturaren ospea azkartu.....	35
3.4.1.	Euskal kulturaren hedapena Akitania Berrian – « Aquitaine.eus » programa.....	35
3.4.2.	Mugaz gaineko lankidetzaren indartzea.....	38
4.	KULTURA ELKARTE-KIDEAK SUSTENGATU ETA AHOLKATU.....	41
4.1.	Laguntzak bultzatu.....	41
4.1.1.	Informazio gaudien antolaketa.....	41
4.1.2.	Jarraikitze kolektiboen antolaketa.....	41
4.2.	EKE-ko elkarte-kideen proiektuak lagundu.....	42
4.2.1.	Sorkuntza proiektuak.....	42
4.2.2.	Hedapen proiektuak.....	48
	EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO ELKARTE-KIDEEN ZERRENDA 2019AN.....	60

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA 2019AN

BILTZAR NAGUSIA

169 elkarte-kidek osatzen dute eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Administrazio kontseiluaren osaketa, Mikel ERRAMOUSPÉ jaunaren lehendakaritzapean:

Instituzioen taldea

Estadoaren ordezkariak

Éric SPITZ jauna, Pirinio-Atlantikoetako prefeta
Hervé JONATHAN jauna, Baionako suprefeta
Arnaud LITTARDI jauna, DRAC-eko zuzendaria

Akitania-Berria Eskualdearen ordezkariak

Charline CLAVEAU-ABBADIE anderea, eskualdeko kontseilaria
Frédérique ESPAGNAC anderea, eskualdeko kontseilaria
Ordezkoak:
Émilie DUTOYA anderea, eskualdeko kontseilaria
Alice LEICIAGUEÇAHAR anderea, eskualdeko kontseilaria

Pirinio-Atlantikoetako Departamenduaren ordezkariak

Max BRISSON jauna, departamenduko kontseilaria
Bénédicte LUBERRIAGA anderea, departamenduko kontseilaria

Euskal Hirigune Elkargoaren ordezkariak

Beñat ARRABIT jauna, hizkuntza politikarako lehendakariordea (euskara eta gaskoia)
Bruno CARRÈRE jauna, kultura partaidetzak, arte heziketa eta kultur ondarea sailako ordezkari kontseilaria

Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria

Aitziber ATORRASAGASTI anderea, kultura zuzendaria

Nafarroako Gobernuaren ordezkaria

Mikel ARREGI jauna, hizkuntza politikaren zuzendaria

Kultura eragileen taldea

Euskal kultura eragileen ordezkariak

Mikel ERRAMOUSPÉ jauna, lehendakaria
Pierre-Paul BERZAITZ jauna, lehendakariordea
Juhane DASCON jauna, idazkaria
Peio SOULÉ jauna, diruzaina
Agnès AGUER anderea
Patxi AMULET jauna

Julien CORBINEAU jauna
Jean-Baptiste COYOS jauna
Katixa DOLHARÉ-CALDUMBIDE anderea
Xabi ETCHEVERRY jauna
Filipe LESGOURGUES jauna

Gomitatuak

Erramun BACHOC jauna, hizkuntza aholkularia
Bernadette SOULÉ anderea, EEP-ko zuzendaria

KONDUETARAKO KOMISARIOA

Pierre ARANGOITS jauna

BULEGOA

Lehendakaria
Lehendakariordea
Idazkaria
Diruzaina

Mikel ERRAMOUPÉ jauna
Pierre-Paul BERZAITZ jauna
Juhane DASCON jauna
Peio SOULÉ jauna

LANTALDEA

Zuzendaritza & administrazioa

Zuzendaria
Administrazioa, konduak
eta giza-baliabideak

Pantxoa ETCHEGOIN jauna

Elixabet MORTALENA anderea

Kultura egitasmoak eta bitartekaritza saila

Egitasmo arduraduna « Ikusgarringintza,
zinema eta mugazgandiko proiektuak »
Kultura bitartekaritzaren arduraduna

eta burasotasun geldialdian), Maitane HERNANDEZ-EYHERAMONHO andereak ordezkaturik

Frank SUAREZ jauna

Maia ETCHANDY anderea (*amatasun*

Ondarea & euskal Etnopoloa saila

Etnologoa eta euskal Etnopoloaren koordinatzailea
Ondarearen balorapenaren arduraduna (lanaldi partziala)
Misio karguduna (Etnopoloa) (2 egun astean)

Terexa LEKUMBERRI anderea

Maite DELIART anderea

Mathilde BAQUÉ anderea

Numerikoa saila

Estrategia & egitasmo numerikoen arduraduna
Internet egitasmoentzako itzultzailea & integratzailea
Multimedia erredaktorea (lanaldi partziala)

Jakes LARRE jauna

Frederik BERRUET jauna

Marion LASTIRI anderea

1. KULTURA ONDARE IMMATERIALARI BURUZKO IKERKETA ABERASTU EUSKAL ETNOPOLOA LABELARI ESKER

1.1. Gogoeta guneak animatu

1.1.1. Ahozkotasunari buruzko mintegiaren antolaketa

Euskal Etnopolo labelizatua izan denetik, EKE-k mintegi bat antolatzen du urtero, EHESS Goi Mailako Giza Zientzia Eskolarekin eta Etnopoloaren partaide-sortzaileekin. Mintegi hori zortzi mintzaldiz osatua da (2019an 9 izan dira), urritik ekainera iragaten direnak, Baionako Euskal Museoa. 2019ko mintzaldien gai orokorra ahozkotasuna izan da. Bederatzi ikerlarik jorratu dute gai hori, bakoitzak bere alde eta manera bereziarekin:

- Urtarrilaren 17a - *Euskal kantuaren intonazio berezia: Zuberoa, Baxenabarre eta Lapurdiko lekukoak*, Agustin Mendizabal, etnomusikologoa
- Otsailaren 21a - *Euskal balada historikoak*, Jabier Kalzakorta, doktorea euskal filologian
- Martxoaren 21a - *Ahozko literatura eta idatzira iragatea: hizkuntza guttituen adibidea okzitanieraren bitartez (XVIII-XIX. mendeak)*, Jean-François Courouau, konferentzia irakaslea okzitandar literatura modernoan
- Apirilaren 18a - *Bretainerazko ahozko ohiduraren eresiak historiarentzat iturri*, Éva Guillorel, konferentzia irakaslea historia modernoan
- Maiatzaren 16a - *Ikerketak euskal hizkuntzaz eta literaturaz*, Patri Urkizu, doktorea euskal filologian
- Urriaren 24a - *Hiztun berriak eta bertso-mundua. Legitimatua a(ha)la auzitan jarri?*, Miren Artetxe Sarasola, bertsolaria eta euskal soziolinguistikan ikerlaria
- Azaroaren 14a - *Nola identifika hizkuntzaren nahasmenduak haur elebidunengan?*, Philippe Prévost, irakasle ikerlari Tours-eko unibertsitatean. IKER-ekin antolatua
- Abendoaren 3a - *Nola hasten dira niniak beren lehen hizkuntz(ar)en ikasten?*, Judit Gervain, ikerketa zuzendaria Paris Descartes unibertsitatean. IKER-ekin antolatua
- Abendoaren 19a - *Hazparneko zapatagintzaren memoria ahozko testigantzetan*, Aitzpea Leizaola, antropologoa eta konferentzia irakaslea EHU. Clarenzarekin antolatua (ikus 1.2.1. *Zapat(h)ari, Hazparneko zapatagintzari buruzko proiektu antropologikoa eta artistikoa* 7. orrialdean).

1.1.2. Tradizioa eta berrikuntza: identitatea denboran zehar kolokioaren antolaketa

Kultura beti berrituz baldin badoa, nola iraun dezake beraz kultura nortasunak denboran? Galdera honi erantzun nahi zion *Tradizioa eta berrikuntza: identitatea denboran zehar* lemapean antolatu den kolokioak, 2019ko ekainaren 13-14an, Baionako Euskal Museoa. Kulturek aldatuz baizik iraun dezaketela, kodigo berriak asmatuz edo zaharkituak berrituz, erronka honen azterketa zuen helburu.

Herrialde desberdinen esperientziak (Euskal Herria, Frantzia, Europa Ekialdea, Erdialdeko Amerika), arlo zientifikoak (antropologia, soziologia, historia, politika) eta artistikoak (arkitektura, diseinua, dantza, musika, gastronomia, arte plastikoak) gurutzatu dira hor bi egunez. Hamalau mintzalari arizan dira tradizioa, berrikuntza eta nortasunaren arteko loturaz, tradizioaren erabilpen eta interpretazio desberdinetaz bai ta ere sorkuntza prozesuetan duen lekuaz. Ehun bat entzuleek parte hartu dute bi egun horietan.

1.2. « Ondarea – Sorkuntza » ikerketa-ekintza garatu

1.2.1. *Zapat(h)ari*, Hazparneko zapatagintzari buruzko proiektu antropologikoa eta artistikoa

2007az geroz, EKE-k ahozko ondarearen bilketa lan handi bat eramaten du Eleketa programarekin. EHES-ekin batean, bilketa horrek, ondare immateriala eta euskal sorkuntza garaikidearen arteko loturaren inguruan gogoetatzera eraman du. Ondorioz, orain duela zenbait urte, ondarearen eta sorkuntzaren arteko harremana Euskal Etnopoloak ikertzen duen gai nagusia bilakatu da, ikuspegi ezberdinetatik eta partaide ezberdinekin.

Eleketa funtsa interes handiko baliabidea izanez bai ikertzaileentzat bai eta sortzaileentzat ere, 2019-2020an Hazparneko zapatagintzaren inguruko egonaldi partekatu bati buruz joatea pentsatua izan zen, 2011n bildu 12 lekukotasunetatik abiatuz.

Euskal kultur erakundea Clarenza elkarteari juntatu da abentura eder horren eramaiteko. Eragile hau LagunArte Konpainiaren eskutik sortu zen 2017an, Bastidako herriaren laguntzarekin. Ondare immaterialaren eta materialaren balorapenean lan egiten du, artisten eta biztanleen arteko esperimentazio artistiko partekatuen bidez.

Euskal Etnopoloa eta Clarenza elkarteak naturalki lotu dira beraz *Zapat(h)ari* egitasmoaren bidez Hazparneko iragan industrialaren eta gaurko Hazparneren arteko erresonantziak entzuteko eta identifikatzeko.

Helburua zen hiru begirada ezberdin eta osagarri gurutzatu zitezen 2019-2020an:

- Aitzpea Leizaola antropologoarena. Honek, 2019ko larrazkenen guzian, EKE-k bildutako lekukotasun horiek ikertu ditu eta eta garai horrek Hazparnen utzi aztarnak aztertu.
- Polo Garat argazkilariarena. Hau ere, 2019ko larrazkenetik hasi da zapatagintzak hazpandar jendartean utzi ondarea argazkitan hartzen.
- Juan Carlos Perez musikagilearena. Honek, bildu soinu zatietan oinarrituz, gaiari buruzko bere musika interpretazioa sortuko eta partikatuko digu.

Artista-antropologo egonaldi partekatu horretan pentsatuak ziren hiru hitzordu nagusietarik bat iragan zen 2019ko abenduaren 19an, ostegun arratsez, Hazparneko Les Tilleuls ostatuan. Gaualdi horretan, Aitzpea Leizaolak Eleketa programaren baitan bildu lekukotasunen lehen irakurketa antropologiko bat eskaini zuen Hazparneko zapatagintza ahozko lekukotasunen bidez izeneko mintzaldiarekin. Denbora berean, Polo Garat argazkilariak egin zituen lehen argazkietatik batzu erakutsi zizkigun.

Gaualdi horrek hasiera eman dio 2020ko iraila arte Hazparneko biztanleekin garatuko den proiektu parte hartzaileari. Beste bi hitzordu publikoak 2020ko ekaina hastapenean eta buruilaren bukaeran aurreikusiak dira.

1.3. Ahozko ondare immateriala bildu eta baloratu

1.3.1. Eleketa programaren segipena

➤ *Ahozko bilketa*

Eleketa programak bere bidea segitu du 2019an: 27 lekukotasun bildu dira (Pirinio-Atlantikoetako Departamenduaren babespean), 365 direlarik orotara gaur egun.

Iparraldean bildu lekukotasun filmatuen karta batean oinarrituz (hortan agertzen dira bai Euskal kultur erakundeak 2007tik hona, bai Eibarko Badihardugu elkarteak 2009tik hona, bai Maite Barnetchek 1971-1986 tartean egin filmaketak), Euskal kultur erakundeak kondutan hartu nahi izan ditu hutsuneak. Horra beraz non bilduak izan diren lekukotasunak: Garazi-Baigorri (9), Amikuze (1), Arberoa-Iholdi-Oztibarre (10), Lapurdi (7), Zuberoa (2). 17 gizonen eta 12 emazte osatzen dute 2019an filmatuen taldea (horietan bi kuple badira).

➤ *Tratamendu intelektual*

Lekukotasunen biltzeaz gain hauen balorizazioaren lehen urratsa den tratamendu artxibistikoa egitea ezin bestekoa da. Pasarteen muntaketa gaiaren arabera, deskribapena, inbentarioa datubase batean Arkhéia Pirinio-Atlantikoetako artxibo zerbitzuaren progiziela erabiliz.

➤ *Datubaseen fusioa eta berriz hartzea*

2015-2018 artean jorratu zen ikergai zabala ikusiz (XX. mendearen bigarren zatian eragin duten mugimenduen historia, izan dadin kultura, erlijio, ekonomia, ala gizarte eta politika sailetan), Departamenduko artxibo zerbitzuak erabaki zuen 4 datubase sortuko zirela, horrela banatuak:

- 21 AV: Euskara eta euskal kultura (hizkuntza, bertsularitza, kantua eta musika, literatura, antzerkigintza, etab.)
- 22 AV: Mugimendu sozio-ekonomikoa
- 23 AV: Politika eta jendartea
- 24 AV: Erlijioa

Lekukoen sailkapena egitea banaketa hori segituz laster zaila bihurtu zen eta zientifikoki ez egokia, askotan horietariko hainbat alor aipatzen baizituzten. EKE-k orduan proposatu zuen ikergaia datubase bakar batean biltzea (21 AV), Jacques Pons Pirinio-Atlantikoetako artxibo zerbitzuko zuzendariak baieztatu zuena.

Ondorioz Maite Deliart-ek behar izan du inbentarioa berriz hartu eta aipaturiko 4 datubaseak fusionatu. Halaber 2019ko maiatzaren 17an Departamenduari bidaliak izan zaizkion fitxero numerikoak berizendatuak izan dira.

Bestalde, bilketa programa orain Iparraldeko 10 lurralde poloetara bideratua dela eta, hainbat datubase (12, 13, 14, 15 eta 16 AV) lekukotasun berriekin aberasten ari dira. Datubase horiek, duela urte batzuk sortua izanik, homogeneitate eskasa agerian uzten dute. Arazo horri aurre egiteko eta Departamenduko artxibo zerbitzuaren instrukzioen bilakaera kontutan hartuta, azaroaren 19an EKE-k eskatu dio Departamenduko artxibo zerbitzuari idatz ditzan kargu txosten zehatz bat eta erreferentziazko dokumentu bat beren artxibistika praktiketaz.

Datubaseen baieztatzea eta publikazioa

EKE-k sortu eta hazi dituen datubaseak Departamenduko artxibo zerbitzuari bidaliak zaizkio ber-irakurtu eta publikatuak izateko.

- Euskal dantza (19 AV): 2017ko urtarrilaren 26an publikatua izan zen. EKE-k beste bi lekukotasun gehitu baizizkion, Pirinio-Atlantikoetako artxibo zerbitzuek berriz hartu eta, 2019ko urriaren 14an ber-publikatu zuen.
- Euskal itsas ondarea - Donibane/Ziburuko portua (18 AV): Departamenduko artxibo zerbitzuek ber-irakurtze lana hasia du 2019an. 2020ko otsailaren 7an, 27 lekukotasunetarik 14 publikatuak izan dira (ikus <http://earchives.le64.fr/>).

1.3.2. Inbentario fitxen gauzatzea

2016-2017an Euskal kultur erakundeak bost inbentario fitxa landu zituen: Zuberoako dantza-maisu eta eskolak, errejentaren pertsonaia, toberak, Besta Berri eta Lapurtar ihauterietako etxe-itzuliak.

2018ko agorritik hona, beste bost fitxa berrien egiten hasi da gai hauen inguruan: Errege Magoen besta Donibane-Lohizunen (Trufaniaz), Lapurtar ihauterietako Zarpantzar pertsonaia, Lapurdiko besta batzuetan egin ohi den Antzara Jokoa, Idi Gizenen besta Baionan, Santibate-Libertimenduak Baxenabarren. Landa-lanak eta idazketak segitu du 2019. urte osoan, bost fitxek 2020ko martxo ondarreko bururatuak behar lukete EKE-ren webgunean zintzilikatuak izateko.

1.3.3. Ipar Euskal Herriko soinu et ikus-entzunezko artxibo zaharren tratamendua

2011n abiatu begiratze programarekin, Departamenduko artxibo zerbitzuak irriskuan dauden partikularren eta elkarten artxibo zaharrak numerizatzen ditu. 2012az geroztik hauen inbentario lana egitea (deskribapena, sailkapena sortutako datubasean) EKE-ri emana zaio. 2019an, Raymond Foulon-en (Raymond François izengoitiz) artxibo funtsaren parte gehiena deskribatua izan da (154 orduetarik 116). Departamenduko artxibo zerbitzuaren berrantolaketaaren ondorioz, EKE-k ez du gehiago artxibista erreferenterik.

1.3.4. Alemaniako euskal presoen grabaketen balorapena

EKE-k 2014-2018 artean Lehen Mundu gerla garaiko 10 euskal presoen grabaketen (87 kantu eta 13 narrazio, denak euskaraz) kopia numerikoak errezebitu ditu Berlingo Etnologia museoa (Phonogramm-Archiv) eta Humboldt unibertsitatearen (Lautarchiv) ganik, Prusiako komisio fonografikoak grabatu zituenak Alemaniako preso-kanpamenduetan. Geroztik ahozko altxor hunen balorapena bultzatua da ekintza ezberdinen bidez, izan kulturala ala zientifikoa.

Musikologia ikerketa

Euskal labelaren baitan emana izan den proiektua. Agustin Mendizabal etnomusikologoak kantuak (musika eta hitzak) partitura numerikoetan transkribatu ditu, Jon Bagües etnologoaren berme zientifikoarekin (Eresbil euskal musika artxibotegiaren zuzendaria).

EKE-k funts arraro hunen ezagutarazten segitu du 2019an.

- 2019ko martxoaren 26an, Korrika kulturala kari, Eusko Ikaskuntza, Eusko Diaspora eta AEK-k *Maitia nunzira?* Elena Canaseta Ainara Menoyoren dokumentalaren proiektzioa antolatu dute Baionan (Kalostrape). Ondotik Maite Deliart eta Maider Bedaxagar-ek aurkeztu dituzte euskal presoek grabaketak.

- Apirilaren 12an, Azkainen, Hitza Mintza elkarteak antolatzaile, Maite Deliart-en mintzaldian (euskaraz emana, bat-bateko itzulpenarekin), 50 bat pertsona bildu ziren, horien artean Jean-Baptiste Suhas preso egon zenaren bi alabatxi.

- 2019ko ekainaren 26tik abenduaren 20ra, Verduneko Mémorial gunean iragan den « 7 millions ! Les soldats prisonniers dans la Grande Guerre » erakusketan kolaboratu du EKE-k. Edith Desrousseaux de Medrano-k, euskal presoek ahotza eta lekukotasuna ezagutu zituenak mintzoak.eus atariari esker, nahi izan ditu euskal presoak integratu erakusketa horretan. Karia hortarat, EKE-k Kattalin Totorikari eskatu dio Antoine Suhas-en euskarazko letraren frantses itzulpena transkribatzea. « La lettre d'un Basque en 1917 » (Ref. PK 1094/95. Lautarchiv, Humboldt-Universität zu Berlin. Traduction française du manuscrit du prisonnier de guerre basque Antoine Suhas (1885-1946, Arcangues), Eskualdun baten letra mila bederatzi ehun eta hamazazpian. Stolberg, 01-08-1917). Gutuna eta soinu grabaketa zati batek aberastu dute presoek buruzko erakusketa hau.

- Euskal presoek familien bilaketa

Jean-Baptiste Suhas (Basusarri): Germaine Suhas, bere erraina, ikusia izan da otsailaren 11n. Bestalde Azkaingo mintzaldian zauden bi alabatxiek informazio interesantak eman dituzte.

Pierre Mendiburu (Armendaritze): familia kontaktatzeko saiakerak ez dute emaitza onik eman.

- EKE-ko kontsultagunea

Humboldt Unibertsitateko artxiboak ez daude mintzoak.eus atarian zintzilikatuak eskubideen baldintzagatik. Kontsultagarri dira Euskal kultur erakundeko egoitzan 2018tik idekia den ahozko ondare kontsultagunean (ikus 2.2.3. *Kultura ondare immaterialaren kontsultagunearen kudeaketa* 12. orrialdean).

2. EKE-REN ESTRATEGIA NUMERIKOAREN GAUZATZEA SEGITU

2.1. Euskal Etnopoloa labelaren ikerketak eta gogoetak hedatu

2.1.1. Mintegien eta kolokioen bildumak sarean ematea

Hizlariak baimena eman ondoren, Etnopoloaren labelaren baitan antolatu mintegietako eta jardunaldietako hitzartze guztiak filmatuak edo grabatuak dira. EKE-ren web-atarian, www.etnopoloa.eus helbidean, « Euskal Etnopoloa » atalaren barnean sailkatuak dira.

Mementu berean itzultzaileek egindako bapateko itzulpenak grabatuak dira ere eta jatorrizko filmak etekin sinkronizatuak, bildutako materiala elebiduna izan dadin beti.

Horiek hola 2019an:

- Mintegiko 9 hitzaldien bildumak plazaratu ziren sarean.
- *Tradizioa eta berrikuntza: nortasuna denboran zehar* izeneko jardunaldien 13 hitzartzeak sareratuak izan ziren ere.

2.1.2. Aktualitatearen hedapena numerikoaren bidez

Euskal Etnopoloaren aktualitatea eta jarduerak, euskaraz eta frantsesez landua den eke.eus web atariko albiste hari berezi baten bidez ezagutarazi zaizkio publikoari. Albiste horietaz gain, labelari zuzendu sareko agenda berezia osatu dugu ere.

Informazio horiek guztiak berriz agertu dira, espresuki sortu dugun Etnopoloaren hilabeteroko berripaperan.

Bestalde, komunikazio bera deklinatu dugu EKE-ren sare sozial ezberdinetan, bai eta gure hilabeteroko informazio berripaperan ere.

Halaber, komunitate animazio bat segurtatua izan da, albiste horien sustapena egina izan zedin ere labelaren partaideen tresna numerikoen bidez.

2.2. Ondare datubaseetarako sarbideak erraztu

2.2.1. Mintzoak.eus ahozko memoriaren atariaren garapenaren segipena

Mintzoak.eus atariko estatistikak - 2019

- Bisitak: 118 766 (+ 85 % / 2018)
- Erabiltzaileak: 15 995 (+ 100 % / 2018)
- Ikusitako orriak: 59 339 (+ 40 % / 2018)

Mintzoak.eus atariaren garapena jarraitu dugu 2019an.

Lehenik, hobekuntza teknikoak eginak izan dira, grabatuak izan diren lekukoen kokapena beren afiliazio herriaren arabera errazteko asmoz.

Fondoen eta bildumen jatorriak lekukotasunen kokapenarekin gurutzatzen dituzten bilaketa estatistikoak ere erraztuak izan dira.

Orain gainera, atarian bilduriko grabaketak gaiaren arabera sailkatuak dira ere (orain arte, bakarrik grabaketa baten sekuentziak ziren horrela sailkatuak).

Edukiei dagokienez, Itsasuko « Itsasuarra mintzo » fondoaren bilaketa tresna sarean ezarri dugu (<https://www.mintzoak.eus/eu/grabaketak/programak/itsasuko-herriko-etxeko-artxiboak/>)

Bestalde, EKE bere artxiboetatik ateratako fondo propio batzuen sarean ezartzeko urratsak egiten ari da. Halaber, eke.eus atarian jadanik ikusgai ziren lekukotasun zati batzuk Mintzoak.eus atarira eramaten hasi gara, hala nola « Amikuztarrak mintzo » (2009) eta « Itsasturiak » (2011) erakusketetarik hartutakoak.

2.2.2. SOKA erakusketaren edukien katalogoa sarean ematea

Gure euskal dantzari buruzko erakusketaren ibiltaritza bukatzekotan zelarik, 2019ko urrian, bertan erakutsiak ziren dokumentu guzien zerrenda osatu dugu eta sarean eman, bertsio arindu batean, denentzat eskuragarri. 440 dokumentu inguru daude erreferentziatuak eta batzuk sarean ikusgai.

2018ko udaberrian, EKE-ren kondu, Maider Bedaxagar dokumentalistak zerrendatu zituen SOKA erakusketaren ilustratzeko erabili ziren dokumentuak (testuak, bideoak, soinuak, irudiak, argazki-bildumak, etab.), hainbat erakunderen aholkuetan bermatuz (Dantzaren zentro nazionala - CND, Médiaquittaine, Baionako mediateka, Iparraldeko Dantzarien Biltzarra, etab.) eta Frantziako liburutegia nazionalaren arauak errespetatuz (leziko tematiko eta geografikoei begira batez ere).

Oroitaraz dezagun dokumentu horiek erreprodukzio numerikoak direla. Jatorrizko dokumentuak toki (artxibotegiak, museoak, familien funtsa pribatuak, etab.) eta herri desberdinetatik datoz. Haietatik batzuk sarean ikusgai dira.

Denak Euskal kultur erakundeko ahozko ondare kontsultagunean eskuragarri dira, hitzordua hartuz gero.

Orain euskaraz eta frantsesez zerrendatuak egonen dira www.soka.eus helbidean. Dokumentu bakoitzari orri bat dagokio. Fitxa horretan zehazten da besteak beste xehetasun gehiago erdiesteko lotura edo dokumentu numerikoaren ikusteko esteka.

Dokumentu baten atxemateko soka.eus webgunearen bilatzaile orokorra erabil daiteke. Bestela, erakusketaren eduki-zuhaitzaren bidezko bilaketa (gaien eta azpigaien arabera) lagungarri da. Laster dokumentu motaren edo gako-hitzaren arabera bilaketa egiten ahalko da ere.

Proiektu hau Akitania Berriko DRAC-aren laguntzarekin eramana izan da, Aquitaine Cultures Connectées programaren baitan.

2.2.3. Kultura ondare immaterialaren kontsultagunearen kudeaketa

Ahozko ondarearekin zerikusia duten hainbat ikus-entzunezko dokumentu daude kontsultagarri Euskal kultur erakundean, dagozkien jabe desberdinen baimenarekin beti. Baliabide numeriko horien

ezagutarazteko ahozko ondare kontsultagune bat sortu du bere egoitzan EKE-k, Uztaritzeko Lota Jauregian.

Kontsultagunea deneri irekia da (ikerlariak, ikasleak, artistak, kultur eragileak, kulturzaleak, etab.) eta dohainik eskaintzen den zerbitzua da. Ezinbestekoa da hitzordua hartzea aitzinetik.

2019an Euskal kultur erakundeak segitu du zerbitzu hori eskaintzen.

Gaur egun, ondoko funtsak daude kontsultagarri:

- Eleketa ahozko bilketa programako lekukotasunak (360 lekukotasun)
- Maite Barnetche kazetariak 1971 eta 1986 artean zuzendu Euskal Herria orai eta gero telebista emankizunak
- Prusiako Komisio fonografikoaren artxiboak (Alemania) - Lehen Mundu gerlako euskal presoen grabaketak (1916-1917)

Funts horien oinarritzko zerrenda www.mintzoak.eus webgunean aurkitzen ahal dira.

SOKA, euskal dantzaren urratsetan erakusketaren dokumentuak ere ikusgai/entzungai dira.

Bestalde, www.mintzoak.eus atarian kontsultagarri ez dauden Ahotsak bilketa programako lekukotasunak (Iparraldean grabatuak) ikusten ahal dira, aitzinetik eskatuz gero (betiere programa honen arduraduna den Badihardugu elkarteak baimena eman ondoan).

Bilaketak egiten ahal dira erran bezala www.mintzoak.eus plataforman jakiteko zer kontsulta.

Hitzordu bat hartzen ahal da ondotik, ikerketa-xedea azalduz.

Kontsulta egiten da beti EKE-ko langile baten ardurapean. Hor dago bilaketak errazteko eta aholkuak emateko.

Etorkizunean, kontsultagune horrek kultura eragileentzako ezinbesteko baliabide-gunea izan nahi luke beren ikerketa artistikoen eta orohar proiektuen hazteko mamia eskainiz.

2.2.4. EATB fondoaren numerizatzea

Euskal kultur erakundearen hainbat artxibo numerizatzeko bidean dira Departamenduko artxibotegiak daraman ikus-entzunezko eta artxibo soinuaren zaharren digitalizazio programaren baitan.

Bere aldetik, 2019an, EKE-k Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra (EATB) Ipar Euskal Herriko antzerki taldeen federazio ohiak dohaintzan utzi dion artxibo funtseko antzerki testuen numerizazioa hasi du.

2018ko udan egin genuen funts horren lehen inbentarioa.

Zer dago gaur EATBko artxiboetan?

- Paperezko testuetan 60 obra. Idazle batzuren izenak, adibide bat emateko: Lafitte, Iratzeder, Dufau, Guilsou, Larzabal, Monzon, Landart, Etxaide, baina obra batzuk anonimoak dira, hain segur ere itzulpenak daitezke edo arramoldaketak
- Argazkiak, talde ezberdineko antzerkilari batzurenak
- Artikuluak, euskaraz eta frantsesez, Herria, Herriz-Herri, Argia astekarietan agertuak, baita Basque-Éclair eta Sud-Ouest kazetetan
- Zinta grabaketak eta bideoak, halaber Maite Barnetche zenak FR3 frantses telebistako 3. katearentzat egin bizpahiru emankizun
- Artxibo horietan daude ere garai hartako propaganda paperak, kartelak, eskuprogramak, 1984tik

1994 arte antolatu zuten « Galarrotsak » Festibalaren egitarauak, etab. Ahaztu gabe, EATB elkartearen administrazioko papereria nasaia

Dokumentu horiek guztiak nahas-mahas daude, sailkatu eta txukundu beharrekoak.

2019an, paperezko argitaratuak eskuragarri eta sarean kontsultagarri ez diren antzerki-testuei eman diegu lehentasuna, numerizazioa burutuz (PDF formatuan, bai irudiz bai testuz). Orotara 57 testu tratatuak izan dira. Zarautzko Digitalidadea enpresak hartu du bere gain lan hori.

Laster fitxategi horiek publikoaren esku egon beharko lukete www.eke.eus webgunean.

2.2.5. Gogoeta kolektiboa dokumentuzko baliabideen eskuragarritasunaz

Etnopoloa labelaren baitan Euskal kultur erakundeak lan sail zabala abiatua du Ipar Euskal Herriko dokumentazio eragile nagusiak bilduz, numerikoak eskaintzen dituen ahalbideen aztertzeko. Helburua: euskal kulturari lotuak diren edukiak publikoari gehiago zabaltzea.

Mota guzietako erabiltzaileek (publiko zabala, ikerlariak, artistak, etab.) baliabide numerikoak errexki eskura eta kontsulta ditzaten, metodologia eta praktika amankomunak bidera daitezke denen artean. Gai hau aipatua izan zen ere Etnopoloaren lehen kolokioaren kariatara, 2017ko maiatzaren 19an, Euskal kulturaren atari bat: zertarako? Norentzat? - Kultura baliabide numerikoak: publiko zabalaren erabilpenetatik sorkuntza artistikoraino lemapean.

Trukaketa horien sustatzeko « Dokumentazioa eta numerikoa » lantalde irekia sortu da.

Artetan tailer tematikoak antolatzen ditu. Tailer horiek euskal kulturari buruzko funtsak dokumentatzeko eta zabaltzeko izaten ahal diren problematika bereziak jorratzen dituzte.

Karia hortara, 2019ko ekainaren 25ean, Euskal kultur erakundeak CERDO baliabide zentroaren aurkezpen bat antolatu zuen bere Uztaritzeko egoitzan. Zentro honek Poitou-Charentes-Vendée eskualdeko ahozketasuna ikertzen du.

Josette Renaud, UPCP-Métive sarearen zuzendariak eta Stéphanie Coulais CERDO-ko koordinatzaileak ahozko memoriaren baloratzeko daramaten lan paregabearen berri emanen ziguten, dokumentazioa/numerizazioaren arloetan darabiltzaten arauak eta lan egiteko moldeak agerian utziz.

Aurkezpenaren bideoa sarean dago eskuragarri.

2.3. Eduki numeriko eta editorializatuak ekoiztu eta partekatu

2.3.1. Eleketa fondoa baloratzeko baliabide ibiltarien sorkuntza

Eleketa programaren kariatara egin lana, publiko zabalarri eta eskualdeka ezagutarazteko asmoz, EKE-k multimedia instalazio ibiltari berezi baten proiektua abiatu du 2019an.

Asmoa da, eskualde ezberdin horietan egin ahozko bilketaren emaitza 2019ko irailetik goiti aurkeztea. Instalazio bakoitzaren edukia beraz, lurraldearen historiari egokitua izanen da (poloetan grabatuak izan diren lekukoen hautaketa).

Eskoletan eginen diren Heziketa Artistiko eta Kulturalaren inguruko ekintza batzuei edo balorapen

artistikoaren inguruko esperientzia batzuei uztartua, erakusketa moldagarri hau tokiko ekimen batzuetarako aitzakia izanen da (ikus-entzunezko ekoizpenak, ikasleen lanak, performantza artistikoak, mintzaldiak, etab.). Hori dena, www.mintzoak.eus atariaren osagarritasunean pentsatua izanen da, bistan denez.

Geroari begira, asmoa litzateke erakusketa hori Euskal Hirigune Elkargoko tokiko poloetan barna ibilaraztea.

Lehen aurkezpena Hazparneko poloan pentsatua denez, 2019an EKE-k lurralde horretan bildu lekukotasun zatien hautaketa baten transkripzioa eta frantseserako itzulpena hasi du. Horrela, azpigitulu horiek multimedia kontsultazio dispositibo horietan txertatuak izaten ahalko dira.

Denbora berean, prefigurazio teknikoaren inguruko ikerketa bat eginga izan da, erakusketaren ekoizpenerako eta haren eszenografiaren zehazteko.

2.3.2. eke.eus webgunearen arraberritzea

2019ko estatistikak - www.eke.eus

- Bisitariak: 295 481 (+ 10 % / 2018)
- Erabiltzaileak: 220 474 (+ 12 % / 2018)
- Ikusitako orriak: 867 221 (+ 10 % / 2018)

Zonbait hilabete lanen ondotik eraberriturik datorkigu www.eke.eus ataria. Gure ekintzak hobeki komunikatzeko asmoz baita ere Iparraldeko kultura biziaren agerian emateko webgunearen grafismoa eta ergonomia landu ditugu.

Sortu denetik, 1998an, 7 urte guziz arraberritze lanak eraman ditugu gure webgunearen hobetzeko.

- 1998: EKE-ren lehen webgunearen zintzilikatzea
- 2005: Euskal kulturaren atariaren sortzea www.eke.org (ZOPE aplikazio zerbitzaria)
- 2012: Plone web-eduki kudeaketarako sistemara migrazioa
- 2019: Plone 5 web-eduki kudeaketarako sistemara migrazioa

Arraberritze lan horiek ezinbestekoak bilakatu ziren Plone web-eduki kudeatzailearen eguneratzeko eta 2005. urtetik sortutako edukien iraupenaren eta eskuragarritasunaren segurtatzeko.

Bestalde, gailu desberdinei baina bereziki mugikorrei egokitutako grafismoaren eta nabigazioaren egokitzeko premia bazen ere.

Lan horren eramateko erabiltzaileen iritziak ere hartu dira kontutan (helburu honekin burutu ziren asebetetze inkestak eta elkarrizketak 2016. urtetik aitzina).

Grafismoari doakionez EKE-ren karta grafikoari jarraikiz (logoa, koloreak, beltza, gorria, etab.) estilo aireztatuagoa proposatua zaio erabiltzaileari, irudiari, ikonografiari leku gehiago utziz. Erran bezala gailu mugikorretan erabilpena errazteko ergonomia landua izan da.

Illo editorialari doakionez EKE-ren ekintzak (laburbiltzeko lantaldearen lana eta sustatutako elkarte-egitasmoak) baita euskal kulturaren agenda dira nabarmendu nahi izan diren aipagaiak.

Hautu horien adierazle diren zonbait aldaketa konkretu aipa daitezke adibide gisa:

- Webgunearen berriek EKE-ko lantaldeak eraman edo lagundu ekimenak aipatuko dituzte hemendik aitzina, blog baten modura
- Etnopoloa labelaren baitan aztertutako gaiak agerian emanak dira atal nagusi batean
- EKE-ren programa eta dispositibo nagusiak fitxa desberdinen bidez azalduak dira
- Euskal kulturaren agendako berrantolaketa nabari da, grafismo landuago batekin. Aberatsagoa da ere Hego Euskal Herrian iragaiteko diren gertakari batzuen hautaketa proposatua delarik.

Webgunean argitaratutako berriak eta gertakariak ez huts egiteko hor daude beti gure berripaper elektronikoak. Bi dira eta bakoitzak bere berezitasunak dauzka:

- Kultura agenda, astero bidalia da: EKE-k lagundutako gertakariak baina ere orohar, Ipar Euskal Herrian, euskal kulturarekin zerikusia dutenak zabaltzen ditu.
- EKE-ren berripapera, hilabetero igorria da: gure harpidedunei EKE-k partaidetza anitzen bidez daramatzan ekintzen berri emate die, beste eduki batzuk proposatuz ere (elkarriketak, lotura interesgarriak, etab.).

Gure webgunea Euskal Herrian pentsatua eta eraikia. Eibarko CodeSyntax enpresak garatu du.

2.3.3. « SOKA, euskal dantzaren urratsetan » erakusketaren ibiltaritzaren bukaera

2019ko ibiltaritza:

- Gasteiz | Oihaneder euskararen etxea | 2019ko urtarrilaren 18tik martxoaren 3a arte
- Baiona | Baionako artxibotegia | 2019ko agorrilaren 30etik irailaren 22a arte
- Beasain | Igartzako jauregia | 2019ko irailaren 28tik urriaren 23a arte
- Eibar | Biharran | 2019ko urriaren 31tik abenduaren 15era

2019 urtearen bukaeran nahiz eta ezarpen eskaerak eskuratzen genituen oraino, beste mediazio egitasmo batzuei lehentasuna emateko, deliberatu dugu hortan uztea « SOKA, euskal dantzaren urratsetan » erakusketaren bost urteko ibiltaritza.

SOKA, zonbait zenbaki:

- Euskal dantzaren historiari eta dimentsio sozialari buruzko 430 dokumentu (argazki, bideo eta soinu) lau hizkuntzatan kontsultagarri
- 21 ezarpen 2015eko irailetik 2019ko abendura eta aurkezpen berezi bat Idahoko Boiseko euskal museoan (AEB) 2015eko uztailan, « Jaialdi » Festibalaren kariatara
- 19 herritan erakutsia (besteak beste Bordele, Paue, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Baiona, Miarritze, Iruñea, etab.)
- 30 000 bisitari inguru
- 80 animazio baino gehiago (hitzaldiak, bisita gidatuak, tailerrak, ikuskizunak, etab.). Eibarren adibidez bisita-gidatu eta hitzaldi desberdinak antolatu zituen Dantzan elkarteak erakusketaren inguruan.

2.3.4. SOKA « Transatlantikoa »

2018ko udaberrian, Montréal-en kokatua den Euskaldunak izeneko Québec-eko euskaldunen elkarte EKE-ren gana etorri zen, SOKA erakusketaren bertsio egokitu baten sortzearen aukera aztertzeko. Egokitzen horren xedea euskal dantzaren aberastasuna lehenik Montréal-en ezagutaraztea da, baina ondotik, Ipar Ameriketako beste toki batzuetan ere.

EKE-k Euskaldunak elkarteak eramanen duen proiektu hori sostengatuko du, Québec-eko elkarte SOKA erakusketaren bertsio « transatlantikoa »-ren ekoizlea eta haren hedapen sarearen arduraduna izanen delarik.

Operazioaren egingarritasuna baloratzen duen teknika eta diru azterketa bat helarazi zaio elkarteari.

2019an, EKE lanean aritu da SOKAren kopia sinplifikatu baten sortzeko, informatika garapen lan batzuen bidez. Karia hortara, hiru multimedia postu garatuko dira, erakusketaren edukiak laburbilduko dituztenak.

Bi bideo proiektuak eta Gabrielle Duplantier-en « Dantza izpiak » erakusketatik atera argazki batzuek osatuko dute 2020ko irailean Montréal-en aurkeztua izanen den instalazioa.

2.4. Kultura aktualitatea bateratu eta baloratu

2.4.1. eke.eus webguneko agendaren garapena

Kultura eragileek eman datuetatik abiatuz eta euskarri ezberdinetako prentsa bilduma baten laguntzaz, EKE-k egunero Ipar Euskal Herri mailako euskal kulturaren agenda osatzen du (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak, etab.).

Informazio guzi horiek herrika geolokalizatuak dira: horrela, bildutako datuei esker, urteko kultura ekitaldiei buruzko estatistika batzuk atera daitezke, herri lurralde eremuka, gaika edo denboraldika.

Eke.eus webgunearen berritzearen kariatara, gure agenda arrakastatsuen aurkezpenera hobetua izan da, bai eta agenda hori zabaltzeko baliatzen dugun berripaperarena ere. Horrela, Eusko Jaurlaritzako Kulturklik (<http://kulturklik.euskadi.eus>) atariarekin garatu partaidetzari esker, Euskadin eta Nafarroan iragaiten diren euskal kulturaren inguruko gertakari batzuen hautaketa bat eskaintzen dugu ere, hortarako sortu dugun atal berezi batean.

Bere aldetik, Kulturklik atariak Ipar Euskal Herriko gertakarien berri ematen jarraitzen du, EKE-ren kultur agendan oinarrituz.

2.4.2. Sortzaileen ikuspuntuen agerian ematea

2008. urteaz gero, hilabetero www.eke.eus atarian argitaratuak diren « Euskal kulturaren lekukoak » saileko elkarrizketen bidez, hitza ematen zaie tokian tokiko kultura aktualitateko eragileei (86 elkarrizketa argitaratuak gaur arte).

2018an berriro egin da elkarrizketen formatua, sortzaileek beren arteari buruz eta orohar euskal kulturaren

orainaz eta geroaz dituzten iritziak eta gogoetak parteka ditzaten. Bi hilabeteetarik behin argitaratuak dira orain, argazkiz eta bideo batez osaturik. Jasone Iroz kazetari ohiak (Laukitik At) egiten ditu.

Beste sei elkarrizketa argitaratu dira 2019an:

- Jean-Louis Iratzoki
- Maryse Urruty
- Marina Beheretxe
- Maiana Aguerre
- Arantxa Hirigoyen
- Thierry Biscary

Oharra: bideo-lekukotasunak osoki argitaratzen ditugu www.mintzoak.eus atarian, pasartez pasarte.

2.4.3. EKE-ren eta bere partaideen berrien hedapena

EKE-ren berriei buruzko hari elebidunak toki garrantzitsua du eke.eus webgune berrituan. Helburua da talde profesionalak egin lana hobeki ezagutaraztea eta lan horri buruzko argitasunen ematea (programen gidaritza, sareen animazioa eta egituratzea, memoria kolektiboaren dokumentazioa eta bilketa, etab.). Aktualitate hori hilabeteroko EKE-ren berripaperaren bidez hedatzen dugu, honen grafismoa ere egokitua izan delarik. Orain arte bezala gainera, berripaper honek gure instituzio eta elkarte partaideen proiektu deialdiak, formakuntza proposamenak eta ekarpen deialdiak biltzen ditu ere.

2.4.4. Komunitate animazioa sare sozialetan

2019an ere, EKE sare sozialetan present egon da (bereziki Facebook eta Twitter-en). Tresna horiek egunero segitzea ezinbestekoa bilakatu da besteak beste EKE-ren irudiaren kudeatzeko.

2020an lan horren nondik-norakoak zehaztuko dituen plangintza zehaztuko eta egokituko dugu plantan jarri dugun estrategia numerikoaren arabera. Bide batez lehenetsi publikoen arabera komunikazio-kanalak finkatuko dira.

2.5. Lankidetzak garatu ikerketa-garapena alorrean

2.5.1. ESTIA-ko ingeniariak eskolarekin partaidetza

Teknologia berrien alorrean ikerketa eta euskal kultura uztartzeko asmoz, Bidarteko Izarbel teknopolan kokatua den Baiona-Euskal Herriko Merkarataritza Ganbarako ESTIA ingeniariak eskolak eta Euskal kultur erakundeak urte batzuetako partaidetza hitzarmena izenpetu dute 2019ko abenduan.

Hitzarmenaren izenpetzea Angeluko Olatu Lekun iragan zen, bertan estreinatzen zen Séverine Dabadie argazkilariaren erakusketa baten aurkezpenaren karietera. André Garetta, Baionako merkatal ganbarako lehendakaria eta Pantxoa Etchegoin EKE-ko zuzendaria izan ziren izenpetzaileak.

Partaidetza hitzarmen hortan bermatuz, bi eragileek hitz ematen dute euskal kultura, teknologia berriak eta enpresa-izpiritua uztartuko dituzten ekimen ezberdinak antolatuko dituztela. Aholkuak, jakintza trukaketak, bitartekaritza lana eta adibidez industria kultural eta sortzaileen inguruko egitasmo amankomunen muntaketa.

Horrelako ekimenek gauzatu eta indartuko dituzte EKE-ren eta ESTIA-ren arteko aspaldiko harreman azkarrak.

3. KULTURA ALOR ETA EKINTZA EZBERDINAK LAGUNDU LURRALDEETAN

3.1. Alor ezberdinen egituraketa eta garapena lagundu

3.1.1. Euskal zinema

EKE-keuskal zinemaren hedapena sustengatzen segitu du. Euskal zinema erreperatorioko filmen hedapena eta liburu argitalpen egitasmoak garatu ditu baita ere euskal zinemaren banaketa lagundu, hori dena Iparraldean, Akitania Berrian eta Frantzia mailan.

➤ **Euskal zinemaren banaketa**

Aurten ere, EKE-ren sustenguekin, Cinéma & Cultures elkartearen Gabarra Films banaketa egitasmoaren bitartez bi filma hedatu dira:

- Fermin Muguruzaren *Black is Beltza* filma

Filmaren promozio lanari eta filmegilearen biraren antolaketari laguntza emana izan da, hedapena Iparraldean eta hainbat herrietan garatzeko (Angoulême, Saint-Ouen, Marseila, Parise, Bordale, Lyon, Montreuil, Saint-Etienne, Montpellier, Avignon, Blois, Caen, Dijon, La Rochelle, Nîmes, Orléans, Poitiers, Villeneuve-d'Ascq edo Tournefeuille).

Ikusle kopurua pentsatu baino ttikiagoa izan da 2 137 pertsonekin. Aldiz, Fermin Muguruzaren presentzian aurkeztu gaualdiak oso jendetsuak izan dira, ikuslegoaren parte haundiena bilduz. Filmaren zirkulazioa Frantzian bikaina izan da 34 zinema gelek 156 emanaldi proposatu baitituzte.

- Telmo Esnaen *Dantza* filma

Filmaren promozio lana eta filmegilearen biraren antolaketari laguntza emana izan da, bereziki Iparraldeko zinema geletan ibiltzeko. Estrenaldiak agorrilaren 20tik gora hasi dira, Baionatik abiatuz. Filmaren ateratzea Iparraldeko eta Frantziako geletan irailaren 4etik goiti abiatu da Paris, Montpellier, Pau edo Toulouse hirietatik pasatuz besteak beste. Orotara 193 emanaldi antolatu dira 5 644 ikusle bilduz, zenbaki bikainak proposatutako filmaren berezitasuna kontutan harturik.

Urte ondarrean, EKE-k erabaki du Iparraldeko zinema gelek eta elkarteek antolatu euskal zinema ekitaldiak sustatzea. Horrela, euskal zineman diharduten banatzaile gehiagoren inplikazioa laguntzeko.

➤ **Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi liburuaren argitalpena eta hedapena**

Euskal kultur erakundea, Etxepare Institutua eta Euskadiko Filmategiaren sustenguz, Pimientos argitaletxearen Arteaz markak *Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi* liburuaren frantsesezko itzulpena argitaratu du martxoko hilean.

Joxean Fernández-ek zuzendutako liburu kolektibo honek euskal zinemaren inguruko gogoeta osatu eta zehatza proposatzen du. Euskal Herriko Unibertsitateko uda ikastaroaren baitan, 2014an, hainbat zinemagile, produktore, kritikari eta ikertzaile bildu ziren Euskadiko Filmategiak antolatu zuen bi eguneko sinposioan. Bilduma honek hitzaldi eta mahai-inguruen ondorioak aipatzen ditu.

Bildutako artikuluek zinemaren hainbat arlo ezberdin aztertzen dituzte, besteak beste, euskal zinemaren

historia, bere izaera, euskara eta nortasun nazionala, industriaren egoera, baita Kimuak programaren garrantzia ere.

Hiru belaunaldi horien arteko elkarriketak agerian ematen ditu trantsizio garaitik hona euskal zinemak bizi izan zituen erronka eta norabide aldaketak.

Liburuaren argitalpenaren kari, EKE-k gaualdi berezi bat antolatu du Baionako Atalante zinema gela berrian apirilaren 12an.

Bi gomita bereziekin hasi da gaualdia: Joxean Fernández-ek, Euskal Filmategiaren zuzendaria, eta Santos Zunzunegui-k, Euskal Herriko Unibertsitateko erakaslea, historialaria, zine kritikoa eta hainbat zine aldizkarien kolaboratzailea, euskal zinearen nondik norakoak aipatu dituzte.

Gaualdiak Paul Urkijo-ren *Errementari* filmaren proiektioarekin segituko du, hau Iparraldeko emanaldi bakarra izan delarik. Aitzin, Annecy hiriko Naziarteko filma fantastikoan eta Nantes-eko Espaniar zinemaren festibalean soilik erakutsia izan da, Netflix plataformak filmaren hedapen eskubideak erosi arte. Horregatik, filma ezin zen zinema geletako pantailetan ikusi. Netflixekin negoziazio luze baten ondotik, gai izan gira Euskal filmategiaren laguntzarekin filma erakusteko Paul Urkijo filmegilearen presentziarekin.

Gela ia kasik bete da eta Paul Urkijo-rekin topaketa bikaina bezain interesgarria izan da, filmegile gazte eta izugarria.

Soutien au court-métrage Anti de Josu Martinez

Baigorri filmatua, labur metraia honek Euskal Herri barnekaldeko herri ttipi bateko haur batzuen historia kondatzen du, nola makil bat « anti » izenekoak ematen zitzairen eskolan euskaraz aritzen hasten zirelarik, egun bukaeran azkena zuenak zigortua zelarik.

3.1.2. Publiko gazteari zuzendu arte eszenikoak – 2019ko KIMU programa

Donostia Kulturak eta Euskal kultur erakundeak dute KIMU programa eraman Biarritz Culture eta Teatro Paraiso egiturekin partaidetzan.

Nerea Gorriti, Naia Muñoz, Mikel Pikaza eta Igor de Quadra aukeratuak izan dira 2019ko KIMU programan parte hartzeko. Lau artistek haur eta gazteei zuzendutako arte eszenikoetan trebatzeko formakuntza bat jaso dute.

Formakuntza mailan, 240 oren ikastaldi, tailer edo/ta workshop segitu dituzte Frantzian, Italian, Belgikan, Espainian edo Norvegian.

Bestalde, lau saridunek 80 bat ikusgarri deskubritu dituzte 15 festibal baino gehiagotan, horien artean « Momix » Festibala (Kingersheim - Frantzia, urtarrilak 31 - otsailak 10), Pragako Festibala: « The Prague Quadrennial of Performance Design and Space » (ekainak 5 - 9), « FETEN » Festibala (Xixon - Espainia, otsailak 17 - 21) edo « Assitej » Festibala 2019 - Haurrei zuzendutako ikusgarrigintza nazioarteko elkarte (Kristiansand, Norvegia, irailak 2 - 7).

Eta ibilbide aberatsa horren bukatzeko, usaian bezala, aukeratu artista bakotxak bere ikerlana eta ibilbidearen memoria aurkeztu du Donostiako Victoria Eugenia Clubean irailaren 30ean. Lan horiek irakurtzen eta zehazten al dira EKE-ren webgunean.

3.1.3. Euskal antzerkia – Ibilki programa

Ibilki programaren bidez, Euskal kultur erakundeak Ipar Euskal Herri guzian euskarazko antzerkiaren hedapena sustatzeaz eta sostengatzeaz gain, bultzada berri bat ematen dio.

Alabaina, EKE-k lurraldeko kultura eragile ezberdinak elkartzen ditu euskarazko antzerkiaren aldeko sare aktibo baten osatzeko. EKE-k programatu konpainien sarien parte bat ordaintzen ditu baita ere liburu programa bat sortzen.

Ahalak eta gaitasunak batzen dira gaur egungo euskal antzerkiaren bizitasuna, kalitatea eta aniztasuna ahalik eta jende gehienei erakusteko asmoz.

Aurten, hiri eta herri horietan ibili dira EKE-k sustatu emanaldiak programa honi esker: Angelu, Baiona, Bastida, Bidarte, Donibane Lohizune, Hendaia, Hiriburu, Maule, Miarritze, Senpere.

2019ko programa:

- *Zazpi senideko*, Axut! - martxoak 3, La Perle gela, Hiriburu
- *Euskal musikaren benetako istorioa*, Ez dok hiru - martxoak 24, Larreko gela, Senpere
- *Zazpi Senideko*, Axut! - martxoak 24, Gaztetxea, Biarritze
- *Ilargi arrantza*, Banakike Konpainia - apirilak 10, Beheria Teatroa, Bidarte
- *Zazpi Senideko*, Axut! - apirilak 17, Ravel Auditorioa, Donibane Lohizune
- *Anton Abbadia*, Loraldia - apirilak 19, Mendi Zolan gela, Hendaia
- *Bidea*, Compagnie Jour de Fête, maiatzak 4, Bastida
- *Oxido*, Pez Limbo - maiatzak 17, « Mai en scène » Festibala, Maule
- *Muxua*, Tanttaka Konpainia - maiatzak 18, Mai du théâtre Festibala, Hendaia
- *Behin bazen internet*, 13R3P / Itzuli Konpainia - urriak 7, La Perle gela, Hiriburu
- *Ghero*, Tartean Teatroa - urriak 8, Michel Portal Teatroa, Baiona
- *Bidea*, Compagnie Jour de Fête - urriak 13, plaza, Bidarte
- *Zaldi urdina*, Artedrama / Dejabu Panpin Laborategia / Axut! - urriak 15 -19, Quintaou Teatroa,

Angelu

- *Zaldi urdina*, Artedrama / Dejabu Panpin Laborategia / Axut! - abenduak 13, Mendi Zolan gela, Hendaia

2019 urteko Ibilki programa zenbakitan: 10 antzezlan eta 13 konpainia programatuak, 21 emanaldi, 10 tokitan, 2 625 ikusle bildurik, hau da 125 ikusle emanaldika.

3.1.4. Euskal literatura – Gazteluma saria

Baionako Elkar etxeak, EKE-k eta Elkar Fundazioek antolatu dute « Gazteluma » burtsa literarioaren hamargarren edizioa. Burtsa horren helburua da Iparraldeko idazle gazteak laguntzea euskarazko eleberri, poesia edo beste eratako idazlan baten sortzea eta argitaratzea.

Bi urteetarik antolatua den ekitaldi honen epaimahaian daude Gexan Alfaro, Piarres Aintziart eta Pantxoa Etchegoin. 2020an Sarako Biltzarran agertuko da liburu berria, *Ene baitan bizi da* izenekoa, honen idazlea delarik Maddi Ane Txoperena.

3.1.5. Euskal kantua

Euskal kultur erakundeak parte hartu nahi du euskal kantuaren geroaz abiatuak diren gogoetetan, oroz gainetik transmisioaren, nork bere egitearen eta sorkuntzaren alorretan.

Disziplina hau hain zabala izanez, lehentasuna abesbatzei emana izanen zaie, sail honek funtsezko lan bat eskatzen baitu Iparraldean, erreperitorioaren arraberritzeko bezainbat kantarien adina gaztetzeko.

Ekintza interesgarriak eramaiten ditu Ahotsaren Akademiak, abesbatzen zuzendariei eta kantariei goi-mailako ikastaldiak (musika formakuntzak, moldaketak, ahots teknikak, koro-zuzendaritza kurtsoak, etab.) proposatzen baitizkie.

2020an elkarte honen helburua da kolegioetako eta lizeoetako gazteen hunkitzea.

Halaber, Abesbatzen Federazioak ikastaldiak bideratzen ditu Iparraldeko abesbatzentzat, goi-mailako koro-zuzendariekin.

Azkenik, Baiona Hiria eta Euskal kultur erakundea, Baionako Ezin aseak elkarteak antolatzen duen « Koruak » Festibalaren partaideak dira. 2019an, milako bat kantarik parte hartu dute eta Mario Gachis konpositoreak egin obra berriak interpretatu dituzte.

Gehitu behar da ere Baionako kontserbatorioaren misioetan dela ere abesbatza-kantuaren irakaskuntza.

Erran gabe doa ekimen horiek guziak badoazela zentzu berera, hau da kalitate artistikoaren hobetzea, erreperitorioen eta kantarien arraberritzea, baina horretarako aktore guzien ekintza juntatu bat beharrezkoa da.

Horretarako, Abesbatza Federazioa eta Ahots Akademiarekin batera, gogoeta egun amankomun bat antolatuko dugu 2020ko udazkenean, lan ardatz berezi batekin: haur koruen formakuntza. Hor gomituak izanen dira kantariak, abesbatza zuzendariak, irakasleak, Ipar eta Hegoaldekoak, erakundeak, etab.

3.1.6. Euskal dantza

Euskal kultur erakundeak IDB Federazioa sostengatu du bereziki bi alorretan: formakuntza/transmisioa eta hedapena.

IDB Federazioak hiru sail handitan lan egiten du:

Euskal dantzarentzat erreferentziazko kuadro pedagogiko baten egituratzea

- « Zelula pedagogiko » baten alhan ezartzea, animatzaileak hartuz eta haien ekintzak aniztuz lanbide iraupenarentzat.

7 animatzaile hartuak izan dira 2019an, 1 500 orenentzat orotara 0,8ko denbora osoz. Phosphoros kabineteak eta Profession Sport et Loisirs egiturek IDB lagundu dute lan kontratuak ongi egiteko.

- Ibilbide amankomunak bultzatzeko lanabes egokiak finkatuak izan dira (helburuak, ebaluaketak, etab.), besteak beste Bilboko Euskal Herriko unibertsitate eta Kontserbatorioekin.

Koordinazio lan bat eramana izan da Baionako Kontserbatoriarekin euskal dantzaren modulua indartzeko

eta eredugarritasuna lantzeko:

* Kontserbatorioak proposatu AFCMD formakuntza IDB-ko langile batzuk segitu dute. Bereziki euskal dantzaren analisiarako beharrezkoak diren gorputzaren ezagutza eta mugimendua landu dituzte.

* Kontserbatoriaren ereduan oinarritu ikerketen araudiak finkatu dituzte, Zabala modularentzat, ebaluaketarako kriterioak bideratuz.

- Departamenduarekin eta arte erakaskuntzako eskolekin lan egitea animatzaileak integratzeko eskola horietan.

Euskal hirigune elkargoak eta Departamenduak lagundurik, IDB-kin lan egin du Soinubila musika eskolarekin dantza eta musika bateratuko dituen esperimentazio bat alhan ezartzeko Hazparneko eskualdean, eta ondorioz lan horrentzat musika/dantza erakasle koordinatzaile baten hartzeko. Ikerketa bat eramana izan da tokian berean, lanpostu bat eraikia eta aitzin-aurrekontu bat egina. 2020ko urte hastapenean erakunde ezberdinei aurkeztua izanen zaie.

- Kontserbazioa eta transmisioa uztartuko dituzten ardatz batzuen lantzea

6 animatzaile eta misio kargudunak lan egin dute pedagogia zelularen babesean. Hitzartze eta ikerketa zabal batzuen ondorioz (190 orduz), ikerketarako lanabes batzu sortuak izan dira, hauek izanen direlarik helburu horren betetzeko lehen edukinak.

- Tresna pedagogikoen sortzea

Ikerketa horiekin, tresna pedagogikoak sortuak izan dira dantza talde eta taldeetako formatzaileentzat: tutoretza tresnak, dantzen fitxa deskriptiboak, aitzinamenduak, etab.

Tresna horiei esker, taldeetako monitoreek proposatu dituzte dantza berriak eta erakaskuntzaren egiteko molde egokiagoak (besteak beste beroaldi ariketak, prestakuntza hobea eta isiltasuna lortzeko erak).

Kaptazio-bideo egun bat antolatua izan da 2019ko azaroan Luhusoko Harri-Xuri gelan, dantza taldeei kalitatzeko lanabes baten eskaintzeko.

Tresna horien sorkuntzarako 195 ordu beharrezkoak izan dira.

* Dantzari ttiki pedagogikoa

Dantzari ttiki pedagogikoarekin, monitoreek badaukate aitzinatze plan bat urte guziko, bai eta ere ikaskuntzarako helburu bat, dantzak pentsatuak baitziren Dantzari Ttiki-ko ikusgarrietan emateko, 2019ko maiatzean.

* Musikari ttiki

Musikari ttiki programa 5 musika eskoletako ikasle musikarientzat zuzendua izan da, horrek parada emanez partitura eta grabaketa egokien sortzeko.

Ekoizpen horiek sarean ezarriak izanen dira 2020an, IDB-ko webgunean.

Tresna horien guzuen erabiltzaileak dira: IDB-ko 42 dantza talde kideak, arte irakaskuntzako 5 eskolak eta haien 100 ikasle musikariak.

- Arte eta kultura hezkuntza egitasmoak

2018-2019 ikasturtean, 16 egitasmo obratu dira 12 eskoletan. 350 haurrek parte hartu dute sorkuntzarako ibilbideetan, euskal kulturaren aspektu nagusiak ezagutzen zituztela ere. Lan hori hiru animatzaileek egin dute.

2019-2020 urteetan, 10 egitasmo programatuak dira, hauek federazioko misio kargudunak bideratuko dituelarik.

- Bilaka Konpainiarekin elkarlana bulzatzea

Eki Nox deitu sorkuntza egitasmoari esker, Zabala moduluko 6 ikasleek parte hartu dute Mathieu Vivier Bilakako zuzendari artistikoak eta Fabio Lopez, Illicite Konpainiako koregrafoak asmatu sorkuntzan, Konpainiako dantzari profesional batekin batera.

- Harri Xuri Dantzan

Zarena Zarelako Konpainiaren « Hariz Hari » sorkuntza 2019ko azaroaren 17an emana izan da Luhuson, gela mukurru beterik.

- *Dantza* filmaren hedapena

EKE-k eta Gabarra films dispositiboak galdeginik, IDB-k lan berezi bat eraman du filma eder horren hedapena sostengatzeko eta taldeei ezagutarazteko. Bi ekitaldi antolatuak izan dira: bat Donibane Garazin, filma aitzin dantzari gazteekin eta bigarrena Hazparnen, filma pasatu eta.

➔ **Euskal dantzaren eragileak laguntzea transmisioan, sentsibilazioan eta formakuntzan**

- Dantza Sarean

Pedagogia animatzaileak dantza taldeetara joan dira dantza kurtsoak eta ikastaldiak proposatzeko. Helburua da formakuntza bainan ere lurralde bereko taldeen topaketa, egitasmo amankomunak egiteko xedea baztertu gabe.

Zelula pedagogiko 6 animatzaileek proposatu dituzte 700 oren kurtso eta ikastaldi, zazpi taldeei eta 4 lurraldeei zuzenduak (Hazparne, Urruña, Kanbo eta Donibane Garazi).

Adibide gisa derragun egitasmo horri esker Kanboko eta Larresoroko dantzari gazteek herri bakoitzeko besteetan parte hartu ahal ukan dutela.

- FOFO eta FOFO+

Formakuntza egunak emanak izan dira taldeetako onberako monitoreei, oroz gainetik hasiberriak diren gazteentzat. Monitore hauetarik hogeiek 2019ko irailaren 14an egin hasierako formatzaileen formakuntzan parte hartu dute (FOFO).

FOFO+ deitu formakuntza jarraikia segitua izan da ere eskoletako bakantza guzietan. Zazpi talde ezberdinetako 15 monitore gazteek parte hartu dute.

Orotara, 2019an, 200 formakuntza oren proposatuak izan dira.

- ZABALA modulua

Kontserbatoriarekin batera, euskal dantzaren ibilbide bat eraikia izan da, hau dantza zorrotz eta landuago bat gutiziatzen duten dantzari gazteei zuzendua delarik.

2018-2019 ikasturtean, hiru kurtso asteka proposatuak izan dira Baionan eta Biarritzen, hiru maila ezberdinetako dantzariak kontutan hartuz. Orotara, 12-20 urteetako 60 ikasleek parte hartu dute.

Halaber, moduluko 5 ikasleek Kontserbatoriak kudeatu Eki Nox egitasmoan dantzatu dute.

Erran behar da 2019-2020 ikasturtearentzat, Zabala modulua kudeaketa administratiboa eta antolaketa Ravel Kontserbatorioak egin dituela, IDB-ren eta Kontserbatorioaren arteko hitzarmen baten bitartez. Halere, IDB gelditzen da beti egitura erreferentea euskal dantzaren edukin pedagogikoak lantzeko eta errepertorio ezberdinentzat irakasle berezituak hautatzeko. Urte guzian ikasleen jarraipena segurtatzeko, Kontserbatorioak irakasle erreferente bat izendatu du, astero euskal dantzarekin batera dantza garaikidea proposatzeko disziplina osagarri bezala.

2019/2020 ikasturtean, 46 ikasleek parte hartu dute.

- Masterklaz

Xiberoko dantzak ikasteaz gain, Bedatse batez deitu ikusgarria aurkeztua izan da Xiberoko lizeoko eta LARPS-eko 18 ikasleei.

Urte bat eta erdiko prestakuntzaren ondotik, Konpany Beritza taldearen erreperitorioa (Baküna Show, Üda batez, etab.) ber-hartzen zuen ikusgarria zazpi aldiz emana izan da Mauletik Baionaraino.

2019-2020 ikasturtean, 28 ikasleek izena eman dute formakuntzaren segitzeko, sorkuntza egitasmo eta dantzari topaketetan parte hartzen zutelarik.

- Euskal dantzaren « osagarria »

2018-2019 ikasturtean, federazioko irakasle bat arduratu da kontserbatorioko dantza klasikoan ari diren ikasleetaz euskal dantzaren aukera Hendaian bideratzeko. 2019ko irailetik lekora, Kontserbatorioak zuzenki ber gain hartu du irakasle honen ordainketa.

- Jalgi

2019ko irailean, dispositiba berri bat bideratua izan da. Hau euskal dantzaren erreperitorioa sakondu nahi duten dantzari gazteei zuzendua da, bereziki Zabala modulua bezalako ibilbide zorrotz eta orokor batean engeiatu nahi ez dutenentzat.

Astero, 12 ikasleek kurtsoa segitu dute Etxepare lizeoan, helburutzat hartuz Dantzari Gazte 2020 ikusgarria.

- Heldu ikastaldiak

EDB Konfederazioarekin eraman mugazgaindiko dispositiboak hiru dantza ikastaldi proposatzen ditu euskal dantza erreperitorio ezberdinak ezagutu nahi dituzten dantzariari.

Ikastaldi hauen prestakuntza eta antolaketa 2019 urtean eramanak izan dira; obratuko dira 2020ko lehen sei hilabeteetan.

- Dantza lasai: dantza kurtsoak heldu hasiberrientzat

Egitasmoa eraikia izan da 2019an, galdeen segidaren obrakuntza 2020an sakonduko da.

➤ **Euskal dantza praktikeei sentsu baten ematea**

- Dantzari ttiki/Musikari ttiki

Urruñan iragan beharra zen haur dantzarien topaketa hiru gune aterpetuetan banatua izan da euriagatik. Aitzin usnatua zen eguraldiaren aurreikuspenak eta musika eskolen mobilizazioei esker, hiru kalitatezko topaketa egin dira hiru herri hauetan: Urruña, Hazparne eta Maule. Haur bezainbeste publikok (1 000 guti gora behera) parte hartu dute, bai eta ere 50 bat ikasle musikarik.

- Dantzari Gazte

2019an, IDB-ko Administrazio kontseiluak landu du gertakizun horren egingarritasuna. Kanbon iraganen da 2020an.

- Dantzari eguna

Dantzari egunarentzat, federazioak taldeei argibideak zabaltu dizkie. Primadera taldeak aurkeztu du Lapurdiko erreperitorioa topaketa aitzineko ikusgarrian, 2019ko urriaren 5ean, Lezon.

3.1.7. Euskal musika eta dantza – Ohiko euskal musiken eta dantzen baliabide gunea

Herri Soinu eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarra elkartu dira Ohiko musiken eta dantzen baliabide-iturri bat sortzeko xedearekin.

Kudeantza batzorde bat eraikia izan da horretarako. Partaideak dira: Euskal Hirigune Elkargoa, Uztaritzeko herria, EKE, Fédération des Associations de Musiques et Danses Traditionnelles elkarteak. Helburu nagusia da dantzaren eta ohiko musiken arteko zubi ezberdinen eraikitzea, alor anitzetan, hala nola formakuntzan, sorkuntzan, hedapenean edo ondare balorapenean. Egitasmo hau hastapenean sartua izan da, Euskal Herriko Lurralde kontratuaren lan ardatzetan (2015-2020).

Iturburua deitu elkarte bat sortu da 2018an, egitura horren egingarritasuna lantzeko misio kargudun bat izendatua izan da urte batentzat 2018 urtearen amaieran.

Ikerketa horren emaitzak 2020ko lehen sei hilabeteetan emanak izanen dira.

3.2. Lurraldeak aholkatu

3.2.1. Euskal hirigune elkargoaren laguntzea euskal kultura eskumena plantan ezartzeko

Euskal Hiriguneak sortu denetik euskal kulturaren gaitasuna hartu du, eta 2018an, kultura orokorraren partaidetza.

Bide hortarik, « gainbalio bat ekarri nahi dio gaurkoari », lehenagoko herri elkargoen jakinduriak baliatuz, dauzkan hornidura ezberdinetaz (Arte Zentroa, musika eskolak, Kontserbatorioa, etab.). Ber denboran, partaidetzak indartu nahi ditu, osagarritasunak bilatuz lurraldeko beste partaide instituzionalekin egitasmoak elkarlanean egiteko.

Ingurugiro horretan eta jakinez NOTRe legearen arabera, kultura erakunde ezberdinen artean partekatua dela (Estadoa, Departamendua, eskualdea, herriak, herri elkargoak, etabar), Euskal hiriguneak beharko ditu ere EKE-rekin lanetan eta eginbeharren osagarritasunak finkatu euskal kulturari doakionez.

Euskal Hiriguneak, 2020ko hauteskundeetarik lekora EKE-rekin partaidetzan antolatu nahi dituen « Kulturaren mintegiek » lehen norabide batzu behar lituzkete argian ezarri, gai horretaz besteak beste.

3.2.2. Kultura politika publikoen sostengatzea

Orokorki, EKE urte osoan aholkulari izan da erakunde ezberdinetan, hala nola herriak, Euskal Hirigune Elkargoa, Departamendua, Eskualdea, etab.

Besteak beste, Departamenduarekin adostu hitzarmenaren babesean, gehigarritasunak bilatuak izan dira interes amankomunen misioak elgarrekin eramateko, hala nola ondarearen, kultura eta arte heziketaren, arte bisualen, irakurketa publikoaren edo ikusgarritasunaren alorretan.

3.2.3. Kultura praktikak: inkesta baten ekoizpena Euskal Herri osarako

Joxean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak eta Pantxoa Etchegoin Euskal kultur erakundeko zuzendariak Iparraldeko kultura kontsumoen eta parte-hartzearen inguruko azken datuak aurkeztu dituzte 2019ko abenduaren 19an, Baionako Merkataritza ganbaran.

Aurkeztu datuak Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen Kulturaren Euskal Behatokiak egindako 2018ko *Kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko inkesta*-tik atera dira. Azterlan hori Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean egin da, 6 300 pertsonetako laginarekin.

Azterlana, EKE-rekin koordinatua egin da eta helburutzat dauka biztanleriaren parte-hartze kulturalaren argazki zehatza ematen duten adierazleak lortzea. Iparraldean bizi diren 15 urteko edo gehiagoko pertsonen egindako 1 150 elkarrizketek osatu dute lagina. Lurraldeen (Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa) arabera ordezkarritasuna ziurtatzen du laginak, baita bizileku-udalerriaren tamaina, sexua, adina eta euskararen ezagutza ere, eta horrek parte-hartze kulturalaren banaketa soziala zein den jakitea ahalbidetzen du, biztanleria-talde guztien arabera.

Datu horien arabera, Ipar Euskal Herriko herritarrek jarrera positiboa erakusten dute kulturarekiko eta, 1etik 10erako eskala batean, 7,5eko garrantzia ematen diote kultur parte-hartzeari. Horrekin batera, parte-hartze kulturalaren bilakaera positiboa egon da azken hamarkadan, eta biztanleak gero eta gehiagotan joaten dira dantza ikuskizunetara, kontzertuetara, antzerkira, bertsu saioetara edota museoetara. Euskarazko kultur kontsumoari dagokionez, euskal hiztunen kultur parte-hartzeak gora egin du.

Azterlanak duela hamar urte egindako aurrekari bat du: 2007-2008 aldiko *Euskal Herriko kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko inkesta*, Kulturaren Euskal Behatokiak bultzatu lehen estatistika-eragiketa. Hortaz, gaur egungo hainbat praktika neurtzeaz gain, aukera ematen du kultura-ohiturak, praktikak eta kontsumoa alderatzeko orain dela 10 urteko egoerarekin.

Ikerketa ikusgai da, nola paperez hala numerikoki, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal kultur erakundeko webgunetan.

3.2.4. Kultura eskubideak integrazioa politika publikoetan

Kultura eskubideek bortxatzen gaituzte beharren, sarbide klasikoen eta kontsumismoaren logika ximpletarik jalgitzea norberaren eskubideak, askatasunak eta erantzunkizunak kontutan hartzeko. Horrela biztanle bakoitzak parte har dezake kultura altxorren ezagutzan, praktikatzean eta hedatzean, nola egunerokoak hala ez ohizkoak diren altxorak.

Duela urte zenbait, eskubide horiek legean sartu dira, hala nola NOTRe (2015), edo LCAP (Liberté de création, architecture et patrimoine - 2016) legeetan.

Ondorioz, politika publikoek kontutan hartzen ari dute gai hau, besteak beste Akitania Berriko Eskualde kontseiluan.

Euskal Herrian, azken urte hauetako eraldaketa administratibo eta ekonomikoek, eta lurraldea nola bizitzen dugun erak bultzatzen gaituzte introspektzio baten abiaraztea lan moldeak aldatzeko eta Euskal Herriko

aktore berriekilako elkarkidetasuna obratzeko. Halaber, Euskal Hirigune Elkargoaren sorrerak dakartzan aldaketek pusatzen gaituzte publiko ezberdinen arteko loturak berrikustea, hiri, baserri, arkitektura, paisaia, kultura anitza duen lurralde honetako euskal kultura eraikitzeke.

Helburu horrekin, EKE-k kultura eskubideen sail hori ideki nahi du eta sakondu bere elkartekide eta eragileekin.

3.2.5. Hirien laguntzea kultura programazioetan

Urte guzian, Euskal kultur erakundea proposamen eta aholku emaile da Iparraldeko herriko etxeentzat, euskal kultura sar dezaten haien kultura edo ondare programetan. Artistak bilatzen ditu, haiekin harremanetan sartzeko (edo loturak egiten herriko etxeekin) eta ekitaldiak segitzen ditu.

➤ **Baiona**

Euskal kultur erakundeak partaidetza hitzarmen bat badu Baionako hiriarekin. 2019ko ekitaldietan, aipa ditzagun bereziki:

- « Kontzertu atipikoak »

Badu orain 10 urte Baionako bestetan, Euskal kultur erakundeak artistak proposatzen dituela Baionako bi leku berezietan: Collégiale elizan eta Protestanteen Tenpluan. Kontzertuak:

- * Oñatiko Ganbara abesbatza, 2019ko uztailaren 26an

- * Andoni Aguirre eta Maitane Sebastian bikotea, 2019ko uztailaren 27an

Bi kontzertu hauek arrakasta handia lortu dute.

- « Koruak » Festibala, 2019ko urriaren 25etik 27ra

Haur koruak, koru mistoak, emazte eta gizon koruak, Lapurdi, Baxenabarre, Xiberoa, Bizkaia eta Nafarroatik etorriak. 1 000ko bat kanari 34 abesbatza. 12 kontzertu orotara, Baionako Katedralean, San Andres elizan, Protestanteen Tenpluan, Collegiale elizan. Halaber, errenteriako eresbil zentroko zuzendariak, Jon Bagues zuzendariak mintzaldi interesgarri bat eman du 2019ko azaroaren 2an. Mintzaldi hau EKE-ko webgunean ikus daiteke.

- Creacity, mugazgaindiko egitasmoan parte hartzea

Kontzertu bat sostengatu du EKE-k: Philippe de Ezcurra eta Aitor Furundarena, 2019ko agorrilaren 16an.

- Ibilki programaren kari: *Ghero*, Tartean Teatroa, urriaren 8an Michel Portal Teatroan.

➤ **Bidarte**

- Abenduaren 16tik 22ra, Bidarteko hiriak Olentzerori buruzko erakusketa eman du Pili Tafernaberriren gelan.

- Ibilki programaren kari:

- * *Ilargi arrantza*, Banakike Konpainia - apirilaren 10ean, Beheria Teatroan

- * *Bidea*, Compagnie Jour de Fête - urriaren 13an, Herriko plazan

➤ **Donibane Garazi**

Euskal kultur erakundeak hiria lagundu du bi kontzerturentzat, ondarearen egunen eta eguberriko gertakarien karietara. Abesbatzak bilatu ditu eta haiekin lehen kontaktuak egin (deialdiak, aurkezpen eta argazkien eskaerak, etab.).

➤ **Donibane Lohizune**

• Patxi Laskarai-ren « Bazterrak » argazki erakusketa ekainaren 21etik uztailaren 14ra ikusgai izan da La Rotonde aretoan. Karia hortara, hainbat hitzordu antolatuak izan dira. Patxi Laskarai-rekin topaketak, ekainaren 29an, eta uztailaren 6 eta 13an. Ekainaren 28an, Odei Barroso-k argazkietan oinarritu bertsoak eskaini ditu.

- « Itsasturiak » erakusketaren bornen muntaketa, Itsas Begiak antolatu erakusketa kari
- Ipuin ikusgarria, « Festi'Contes » Festibalean, Koldo Amestoy eta Michèle Bouhet artistekin
- Iñaki Martiarena « Mattin » idazlearen ekitaldia
- Donibane Lohizuneko 15 lekukotasunen erakusketa, Ondarearen Egunak kari, 2019ko irailaren 21 eta 22an
- Ibilki programaren kari: *Zazpi Senideko*, Axut! - apirilaren 17an Ravel Auditorioan

➤ **Hendaia**

• « Kaperan A Kapela » zikloaren 16. edizioa, Abbadia Behatoki Jauregian, Hendaia hiri eta Turismo Bulegoarekin partaidetzan.

Segurtasun neurrien bilakaeragatik, kontzertu bat bakarrik antolatua izan da Abbadia Behatoki Jauregiko kaperan. 2019ko apirilaren 6an, Haratago taldeak eta Maddi Oihenart kantariak basa ahaideen ohitura zaharrari gaurko munduan bizi eta zentzu eman diote, barneko soinuak eta aire garaikideak fineziaz elkartuz. Kontzertua aitzin, Elsa Oliarj-Ines-en *Les aires sauvages – Basaideak* dokumentala proiektatu dute Les Variétés zinegelan.

- Performantza ibiltaria – irailaren 14an

Kultura sartzearen kari, Hendaia hiriak eta Euskal kultur erakundeak musika emanaldi ibiltaria proposatu dute Itsas etorbidean, Timbrat taldeak eskainirik.

- Ibilki programaren kari:

* *Anton Abbadia*, Loraldia - apirilaren 19an, Mendi Zolan gelan

* *Muxua*, Tanttaka Konpainia - maiatzaren 18an, « Mai du théâtre » Festibalaren kari

* *Zaldi urdina*, Artedrama / Dejabu Panpin Laborategia / Axut! - abenduaren 13an, Mendi Zolan gelan

➤ **Hiriburu**

Partaidetza berriak bultzatu ditugu 2019an Hiriburuko herriarekin:

- *Zazpi senideko* antzezlan, Axut! Konpainia - martxoaren 3an, La Perle gela (Ibilki programa)
- *Behin bazen internet*, 13R3P / Itzuli Konpainia - urriaren 7an, La Perle gela (Ibilki programa)
- « Paroles de villages » egitasmoa: Michèle Bouhet eta Koldo Amestoy kondalariekin
- Lekukotasunen bilketa, Hiriburuko herriaren partaidetzarekin
- Ikuskizuna, besteak beste lekukoak gomitaturik, 2019ko azaroaren 17an

➤ **Maule**

Euskal kultur erakundeak Mauleko hiriak antolatu euskarazko hiru ikuskizun sostengatu ditu, hauen artean Ibilki programaren barneko Pez Limboren *Oxido* obra. Orkorkiago, hiru urteko hitzarmen berri bat izenpetua izan da Mauleko hiriaren eta Euskal kultur erakundearen artean.

3.2.6. Partaidetzen segipena egitura labelizatuekin

➤ *Scène nationale du Sud-Aquitain*

Euskal kultur erakundea obralarikide izan da Baionako Scène nationalarekin euskal ikuskizun batzuentzat:

- Iñaki Salvador Sextet/Hommage à Mikel Laboa, otsailaren 8an, Baionako antzokian
- *Giltzadun etxea* antzerkia - Mada Alderete - Ttanttaka Konpainia, apirilaren 30ean, Baionako antzokian
- *Izpiliku sasi giblean gordeturik* publiko gazteendako antzerkia, Hecho en casa Konpainia, maiatzaren 14ean, Baionako antzokian

Bestalde, EKE partaide izan da Axut! Konpainiaren *Zaldi urdina* antzerkiarentzat, urriaren 15etik 19ra, Angeluko Quintaou antzokian.

Pierre-Paul Berzaitzen ekoizpen diskografikoaren partaidetza, Elkar, Scène nationale, CRR Maurice Ravel, Iparraldeko Orkestrarekin batera: grabaketak 2019ko otsail-martxoan; diskaren jalgitzea eta kontzertuak udazkenean.

Oihaneke zuhainetan sorkuntza egitasmoa, Oihan Oliarj-Ines eta Elsa Oliarj-Ines artistekin: lehen egonaldia 2019ko martxoaren 25etik 30era, Baionako antzokian. Egonaldi hau Culture/Kultura emaitza fondoak lagundu du.

➤ *Centre Chorégraphique National (CCN) Malandain Ballet Biarritz*

« Euskal hitzorduak » deitu laugarren edizioaren partaide izan da EKE. Euskal dantzaren inguruko topaketa hauek iragan dira 2019ko azaroaren 10 eta 11an, Biarritzen (Hiri kasinoan, Colisée, eta kanpoan).

2019ko talde hauek parte hartu dute: Maritzuli Konpainia (*Ezpata dantza*); So.K (G.E.S.S.); Bilaka (*Saioak*); Aukeran Dantza Konpainia - Edu Muruamendiaraz (*Biz Hitza*).

➤ *Conservatoire à Rayonnement Régional (CRR) Maurice Ravel*

Hitzarmen bat izenpetua izan da EKE, Ravel Kontserbatorioa, Baionako hiria, Bilaka eta Illicite dantza Konpainien artean. Gaia zen musika eta dantza koregrafia berri bat sortzea, kuadro pedagogikoaren babesean, 2018/2019 ikasturtean.

Sorkuntza oinarritua izan da Nathalie Biarnès andereak egin musikan eta koregrafia Mathieu Vivier (Bilaka) eta Fábio Lopez (Illicite) artistek segurtatu dute.

Lehen kooperazio bat izan da bost partaideentzat, Euskal Herriko irakaskuntza koregrafikoak egituratzeko eta iraunkortzeko xedearekin, besteak beste Baionan, Oldeak deitu plataformaren bitartez.

Obra hau leku ezberdinetan agertua izan da, eta bereziki Baionako Lauga gelan 2019ko otsailaren 16an eta ondotik Biarritzen, 2019ko ekainaren 10ean, Gare du Midi antzokian.

Horri datxikola, obra horren grabaketa aitzinikusia da estudioetan, orkestrako ikasleen eskutik, batzuetan ikusgarri hori emana izan dadin musika grabatuarekin.

3.3. Euskal kulturari sentsibilizatu

3.3.1. Arte eta Kultura Heziketa

Arte eta Kultura Heziketa (AKH) batzorde teknikoaren bilkuretan, EKE, Departamendua, Euskararen Erakunde Publikoa, Akademiako Ikuskaritza, Erakaskuntza katolikoa, IKAS pedagogia zentroa, Canopé eta berrikitan DRAC eta Euskal Hirigune Elkargoa bildu dira.

2018ko ekainaren 21ean antolatu azken bilkura batean erabaki da batzorde estrategiko baten plantan ematea partaide ezberdinekin, AKH-ri buruzko lurralde mailako politika baten pentsatzeko, denen osagarritasuna landuz. 2019an ez baita egin, topaketa hori 2020an antolatuko da.

3.3.2. Heziketa irudiari – Zineskola dispositiboa

Euskal kultur erakundeak koordinatu Zineskola programaren baitan, martxo eta ekaina artean *Grufaloo*, *Harpetarra* eta *Zarafa* filmen ikustera joan dira Iparraldeko 40 herritako 60 bat ikastetxetako 3 641 ikasle. 95 film emanaldi ezberdinak antolatuak izan dira, lurraldeko zinema gela guzietan, euskaraz ikasten duten lehen mailako ikasle sekulan baino gehiago bilduz.

Irakasleei proposatu proiektzioak eta ustiapen pedagogikoak dispositiboaren garapenaren pausu garrantzitsuak izan dira ere bai. Horiek izan dira talde pedagogikoaren parte hartzaileak: Hezkuntza ministerioko euskararentzat aholkulari pedagogikoak, IKAS pedagogia zentroko kide bat eta beste bat EKE-koa.

Azkenik, gogoaraztekoa Uda lekuk, Aldudarrak Bideoren laguntzarekin egindako filma laburra Hendaiaiko aisialdo zentroko haurrekin, bideo tailer baten kari. Filma erakutsia izan da emanaldi gehienak hasi aitzin.

Ikasle kopuruak horrelakoak izan dira filmen arabera:

- *Grufaloo*: 1 611 ikasle
- *Harpetarra*: 1 130 ikasle
- *Zarafa*: 900 ikasle

2019 urteko arrakastak segitzea animatzen gaitu 2020an beste film eder batzuen eskaintzeko.

Zinegela partaideak: Atalante (Baiona), Le Royal (Biarritz), Le Sélect (Donibane Lohitzune), Haritz Barne (Hazparne), Itsas Mendi (Urruña), L'Aiglon (Kanbo), Maule Baitha (Maule), Saint-Louis (Donapaupe), Le Vauban (Donibane Garazi), Les Variétés (Hendaia).

Zineskola 2019 edizioko parte hartzaileak: Euskal kultur erakundea, IKAS, Hezkunde Nazionalea, Gabarra Films, Cinévasion, Uda Leku eta Zineuskadi.

3.3.3. Euskal antzerkia eskola ingurumenean

2019ko otsailaren 6, 7 eta 8an Baionako Bernat Etxepare lizeoko Biltoki gelan Huts Teatroa Konpainiak *Hozkailua* emanaldiaren hedapena lagundu da. Orotara, sei emanaldi izan dira, Baionako Etxepare, Cassin eta Villapia lizeoko 400 bat ikasle bildu direlarik. Egitasmoa Etxepare lizeoarekin, Baiona hiriko euskara bulegoarekin eta EKE-rekin partaidetzan gauzatu da.

3.3.4. Euskal kulturaren eguna Baionako Kontserbatorioko irakasle eta ikasleentzat

Euskal kultur erakundea egun horren partaide da. Mintzaldiak eta tailerrak zuzenduak dira Kontserbatorioko irakasle eta ikasleei. 2019ko martxoaren 23an antolatua izan da.

3.3.5. Euskararen eta euskal kulturaren integrazioa irakurketa publikoaren sarean

Alor hori ekintza zonbaitzuren bidez gauzatzen da: Bilketa sareari zuzendu egun profesionalen antolaketa, EKE-k mediatekekin antolatu kultura programazioa eta ekartzen dien aholkularitza artistikoa, Bilketa sareari sostengu teknikoak Biblio64-rekin duen partaidetzaren bidez.

➤ **Bilketa sareari zuzendu egun profesionalak**

Lurraldeko liburutegi-mediateketako langileak euskarari eta euskal kulturari sentsibilizatzeko garrantzia du Bilketaren proiektuan. Horregatik, gai ezberdinei buruzko egun profesionalak antolatuak dira. Egunduek formatzeko, informatzeko eta deskubritzeko parada eskaintzen dute, baina bestalde ere, bakoitzaren praktikei eta problematikei buruzko trukaketa ahalbideratzen dute. 2019an, 3 egun proposatuak izan dira:

- 2019ko apirilaren 23a: Euskarazko literatura helduentzat - Sara

* Goiza: *XXI. mendeko euskal literatura* Itziar Madinaren eskutik, Euskal Idazleen Elkartearen aurkezpena, Garbiñe Ubeda eta Peru Iparragirrearekin, topaketa eta trukaketa mementoa parte hartzaile guztien artean.

* Arratsaldea: *Odisea*, Pantxix Bidarten performantza artistiko-literarioa eta mahai ingurua *Irakurketa euskaraz nola sustatu?* gaiari buruz

Lehen aldiz, Sarako Biltzarraren kari egun profesional bat antolatua izan da. Egitaraua Bilketak, Sarako Biltzarrak eta Euskal kultur erakundeak prestatu dute eta hogeita hamar bat profesional hurbildu dira.

- 2019ko uztailaren 4a: Nafarroako liburutegiaren bisita - Iruñea

* Goiza: Nafarroako liburutegiaren eta filmotekaren bisita

* Arratsaldea: Karrikiri elkarte-liburutegiaren aurkezpena eta trukaketa Nafarroako ASNABI, Biblio64 eta Bilketa-ko profesionalen artean.

• 2019ko azaroaren 14a: Euskal antzerkigintza, tradizioa eta bilakaera – Zer programatu liburutegietan? - Lota Jauregia, Uztaritze

Egun erdiko egitaraua: *Euskal antzerkiaren historiaren aurkezpena* Ixabel Etxeberriaren eskutik eta *Zein euskarazko antzerki programatu liburutegietan?* aurkezpena Xabina Claverie-ren eskutik.

➤ **Euskarazko kamishibai-ak**

2019an, Biblio64-k eta EKE-k lan talde bat abiatu dute, ondoko helburuekin: kamishibai-en inbentarioa zehaztea, hautaketa bat egitea, itzulpenen testuak biltzea eta egileen eskubideak aztertzea.

Argitaletxeekin akordio bat lortu ondotik, 2020an, itzulpenen berrirakurketa egingen da eta Biblio64-k euskarriak egokitu eta prestatuko ditu (fitxak PDF formatuan sortzea, euskarazko testuen txertatze, etab.). Hala, Iparraldeko liburutegiek 10 kamishibai elebidun mailegatzen ahalko dituzte haien animaziorako.

➤ **Irakurketa kutzak**

Biblio64-k, EKE-ren laguntzarekin, lurraldeko liburutegiei euskarazko irakurketa kutzak proposatu nahi dizkie. Hogei bat liburuz osatutako kutxa horiek liburutegiek bi hilabetez eskuratzen ahalko dituzte liburutegiek; haien animaziorako erabiltzen ahalko dituzte, bai eta maileguetarako.

Kamishibai-ei buruzko lan bilkuretan, asmo hori aipatua izan da, liburuzainen iritzia entzuteko. Ondorioz, 2020an liburuzainei zuzendu galdera sorta bat bidaliko da liburutegietan dituzten beharrak ezagutzeko eta horien arabera kutzak osatzeko (adin tartea, liburu mota, etab.).

➤ **EKE-k mediatekekin antolatu kultura programazioa eta ekartzen dien aholkularitza artistikoa**

- Euskal Idazleen Elkartearekin partaidetza

Euskal Idazleen Elkartea-k (EIE) topaketa programa bat proposatzen du Hegoaldeko hainbat egituratan, euskal idazleak ezagutarazko eta euskarazko irakurketa sustatzeko. 2018ko urriko Bilketa egun profesionalean, EIE-ko kideek adierazi zuten 10 topaketa proposatu eta finantzatu nahi zituztela Iparraldean.

Horretarako, eskoletan eta liburutegietan proposa daitezkeen animazioen zerrenda osatu du EIE-k. Bestalde, EKE eta Bilketa informazioa liburutegien eta mediateken artean zabaltzeaz arduratu dira eta bildu dituzten eskaerak EIE-ri helarazi dizkiote.

Azkenean, zazpi topaketa antolatuak izan dira: Miarritzeko mediatekan, Baionako mediatekan, Irisarriko mediatekan, Uztaritzeko IKAS-en, Amikuzeko mediatekan, Mauleko mediatekan eta Hendaiako mediatekan.

- Biarritzeko mediateka

Duela urte andana bat finkatu partaidetzak segitzen du eta 2019an ere zonbait ekintza antolatuak izan dira Miarritzeko mediatekan:

* 2019ko maiatzaren 16a: *Literaturatik zinemara* mintzaldia, Bernardo Atxagaren eskutik. Topaketatik landa, Atxaga-k idatzitako liburu batean oinarritu *Soinujolearen semea* proiektatu dute Le Royal zinegelan.

* 2019ko irailaren 25a: Kamishibaizaleak tailerra « Mattin » Iñaki Martiarenak eramanik. *Xotixe*, bere azken lana, irakurri die hamar bat haurri eta haien kamishibai-a sortu dute.

3.4. Mugaz gaineko lankidetzaren eta euskal kulturaren ospea azkartu

3.4.1. Euskal kulturaren hedapena Akitania Berrian – « Aquitaine.eus » programa

2016ko urtarrilean Etxepare Euskal Institutuak eta Euskal kultur erakundeak sustaturik, eta Akitania-Euskadi Euroeskualdearekin elkarlanean, martxan jarritako proiektu honek helburu hauek zituen: batetik, Ipar eta Hegoaldeko euskal kultur sortzaileen lanak Akitaniako diziplina ezberdinetako jaialdi eta ekitaldietan erakustea; bestetik, Akitaniako eta Euskadiko kultur sortzaile eta eragileen arteko mugaz gaindiko harremanak eta elkarlana sustatzea.

Proiektu hau, Euroeskualdearen 2014-2020 Plan Estrategikoak jasotzen duen « Europar hiritartasuna » ardatzaren baitan ulertu behar da, eta ardatz horrek barnebiltzen dituen bi ekintza hauek indartzea du xede: euroeskualdeko hizkuntza ondare amankomuna sustengatzea eta kultura euroeskualdeko lankidetzaren zutabe bihurtzea. 2017an Nafarroako Kultur Zuzendaritza – Vianako Printzea Erakundea proiektuan sartzeak, euroeskualde mailako lankidetzak kultural honi bultzada berri bat eman zion.

2019an Euroeskualdearekin hitzarmena berritu eta indartzearekin, programa hau euroeskualdearen lurralde berrietara eramateko aukera eman digu, bai Akitania Berrian bai Nafarroan, eta elkarlan hau beste hainbat kultur diziplinetara zabaltzeko aukera ere eskaintzen du.

Hauek dira 2019an programaren baitan burutu ditugun ekintzen laburpena:

➤ *Union Régionale des Foyers Ruraux du Poitou-Charentes elkartearekilako lankidetzak*

Hitzarmen bat izenpetua izan da elkartearen eta EKE-ren artean. Hitzarmen horren helburua nagusia da esperimentazio baten bideratzea « Bizi, pentsatu, lurraldeak kondatu Akitania Berriko herritar gisa » egitasmoaren bitartez. Hau eramana izan da lau lekutan: Charente-Maritime, Deux-Sèvres, Vienne eta Euskal Herriko lurraldeetan.

Euskal Herriari doakionez, Euskal kultur erakundeak eta URFR Federazioak proposatuko die Michèle Bouhet eta Koldo Amestoy bi kondalariei, haien tokiko historia batzu konda ditzaten, biek elgarrekin lan eginez eta haien behakoak eta hitzak kurutzatuz, topaketen ondorioz idazlan amankomun bat idazteko. 2018an, bi kondalariek jendeen lekukotasunak bildu dituzte, nola Vienne departamenduko herri batzuetan, hala Euskal Herrian, Hiriburu hautatua izan delarik lan horren egiteko. Orotara, 20 bat presuna (herritarrak, artistak, arte langileak, etab.) elkarriketatu dituzte. Bigarren lan amankomuna izan da lekukotasun horietatik abiatu eta, bi eskuz idazlan bat egin dute, hau 2019an, Gestes argitaletxeak argitaratu duena. Artista egonaldiak eginak izanen dira 2020ean, Vienne eta Euskal Herrian, ondotik ikusgarria zabaltzeko Akitania Berriko eskualde ezberdinetan.

Hastapen gisa, bi ikusgarri antolatuak izan dira 2019an, Michèle Bouhet eta Koldo Amestoy kondalarien inguruan:

- 2019ko azaroaren 15ean, Donibane Lohizunen, « Festi'Contes » Festibalean
- 2019ko azaroaren 17an, Hiriburun, La Perle gelan

➤ *UPCP-Métive federazioarekilako partaidetza*

UPCP-Métive (Union Pour la Culture Populaire en Poitou-Charentes et Vendée) egitura Akitania Berriko sare handi bat ahoz-ahozkoaren balorapen lanak eramaten dituena, kontutan hartuz hainbat adierazpen, nola ahozko literatura, kantua, musika, bainan ere dantza, bai eta ere jendeen historiak, sozial eta ekonomia gaiak, ingurumena, etab. Oroimen kolektiboa biltzen dute eta transmisio ekintzak publiko ezberdinei

bultzatzen, baztertu gabe arte eszenikoen hedapena. Oro har, aspaldiko jakinduria daukate ondarearen bilketan eta euskarrien tratamendu tekniko eta zientifikoan.

Euskal kultur erakundeak partaidetzak ideki nahi ditu elkarte horrekin, lehenik ondare gaiak aztertzeke elgarrekin bainan ere Euskal Herriko artistak Poitou-Charentes aldera eramateko. Lehen ekintzetarik izan da Bilaka Konpainiaren ikuskizuna 2019an.

➤ **Euskal antzezlanak frantseserako itzulpena**

2019ko Urriaren 15 eta 16an, *Zaldi urdina* Artedrama eta Dejabu Konpainien arteko euskal antzezlanaren bertsio originalean ikusi ahal izan zen Angeluko Quintaou gelan (Scène nationale du Sud-Aquitain), frantsesezko goitituluekin.

Aquitaine.eus programaren babesari esker, antzezlan hau euskaratik frantsesera itzuli eta goitituluak prestatu ziren, emanaldi hauetara bereziki gonbidatuak izan ziren Akitaniako programatzaileek antzezlanak euskaraz ikusi zituzten, eta euren antzokietan frantsesezko goitituluekin programatu ahalko dituzte datozen hilabeteotan.

➤ **Euskal dokumentalak La Rochelle hirian**

Aquitaine.eus programaren hedapena Akitania Berriko Poitou-Charentes eskualdera zabalduz, « Sunny Side Of The Doc » nazioarteko dokumentalen azokan, Euskadiko, Nafarroako eta Euskal Herri Elkargoko ekoiztetxeek parte hartu zuten, 2019ko ekainaren 24tik 27ra. Euroeskualdearen lankidetzari esker inoiz baino enpresa gehiagok parte hartu zuten azoka honetan « Basque Audiovisual » markapean, 15 enpresak hain zuzen, horietako 2 nafarrak eta beste 1 Iparraldekoa: Arena Comunicación, On Produksioak, Gastibeltza Filmak, Media Attack, Sonora Estudios, Haruru Filmak-Kooperatiba, Komiki Films S.L., Pimpi & Nella Films, Eman Films, Fascina Producciones, Taui Media S.L., Maluta Films, Tentazioa Produksioak, Sincro Producción eta Brisney S.L.

Halaber, urtero Donostiako Zinemaldian Ibaiak (Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte) antolatzen duen Lau Haizetara Dokumentalen Koproduksio Foroa eta Iparraldeko Kanaldude telebista ere egon zen ordezkaturik.

Azoka honetan « Basque Audiovisual » standak muntatu genuen, eta euskal-nafar dokumental berrien katalogoa banatu genuen akreditatu guztien artean (2 000 profesional), Poitou-Charentes eskualdera eta ikus-entzunezko arlora ere zabalduz Aquitaine.eus egitasmoa.

➤ **Euskal konpainiak Libourneko « Fest'Arts » Festibalean»**

« Fest'Arts » Kaleko Arteen Nazioarteko Jaialdiaren baitan, 2019ko agorrilaren 8tik 10era, 2 euskal kale antzerki eta dantza konpainia aritu ziren: Gipuzkoako Ertza Konpainia, *Meeting point* lanarekin (2018an Kaleko Ikuskizun onenaren Espainiako Max saria jaso zuena) eta Deabru Beltzak Konpainia bizkaitarra, *Simfeuny* musika eta su artifizialen ikuskizunarekin. Jaialdian euskal artistak Frantziar programatzaileei aurkezteko zein mugaz gaindiko euskal-akitaniar kultur erakunde eta sortzaileen arteko elkarlan aukerak aztertzeke topaketa bat ere burutu zen, eta bertan parte hartu zuten, besteak beste, Pedro Ormazabal Artekaleko lehendakariak, Imanol Otaegi Etxepareko Kultur zuzendariak, euskal ordezkariak, Tiphaine Giry « Fest'Arts »-eko zuzendariak, Phillipe Buisson Libourneko alkateak, eta Akitaniako hainbat programatzailek.

➤ **Euskal musikak eta argazki erakusketa Le Rocher de Palmer aretoan**

Cenon (Bordele inguruan) hiriko Le Rocher de Palmer kultur zentroak euskal kulturari udazkeneko eskaintzen dion leihoa ideki da berriro 2019ko azaroan.

Batetik, Juantxo Puerta Extremera eta Ignacio Rubio González argazkilari nafarren erakusketa bat aurkeztu zen azaroaren 5ean; eta bestetik, egun berean, Iñaki Salvadorren seiko formazioaren (Laboa Jazz sextet) eta Mielotxin taldearen kontzertu bana izan zen.

Bakoitzak bere azken lana eraman zuen zuzenekora; musikarekin lotutako izen handi bana omentzen duten lanak, biak ala biak. Lehenarenak, Alan Lomax in Memoriam, etnomusikologo amerikar ezaguna omentzen du. Bigarrenarenak, aldiz, Lilurarik ez: Mikel Laboarekin solasean izenekoak, euskal musikariaren abesti ezagunenak jazz ukitu batez berrirakurtzen ditu. Aroa bete egin zen 650 pertsonarekin.

Bestetik, Puerta eta Rubiok musika eta festa batu nahi izan dituzte « San Fermín y el Rockanroll » izeneko argazki erakusketan, azaroaren 27ra arte ikusgai izan zena. Erakusketaren zabalera ekitaldian eta kontzertuetan egon zen EKE-ko zuzendaria, Pantxoa Etchegoin.

➤ **Bilaka dantza Konpainia Parthenay (Poitou-Charentes) eta Arcachon hirietan**

Frantziako Parthenay hirian *Saio Zero* emanaldia eskaini zuen Bilaka Iparraldeko taldeak, 2019ko martxoaren 9an. Modu honetan, Poitou-Charentes-eko erakundeekin elkarlan berriak irekitzen hasi gara, Akitaniako eskualde berrietara ere euskal kultura zabalduraz.

Bestetik, Arcachon-go « Cadences » Festibalean ere parte hartu zuen Konpainiak irailaren 20an *Saio Zero* Theatre Olympian eta irailaren 22an *So-K* ikuskizuna kalean eskainiz. « Cadences » Festibal honetan Kukai eta Ertza euskal taldeak ere izen ziren gonbidatuak.

➤ **948 Merkatua**

Etxeparek Euroeskualdearekin duen Aquitaine.eus proiektuaren baitan, Iruñako 948 Merkatuarekin elkarlanean aritu gara aurrean ere, 2019ko azaroaren 20tik 23ra. Akitania, EAE eta Nafarroako sortzaile, erakunde eta eragile kulturalen presentzia sustatzen dugu bertan. Izan ere, mugaz gaindiko harreman kulturalak sustatzeko eta EAE Nafarroa eta Iparraldeko sortzaileen lana Akitaniako programatzaileek ikusi ahal izateko Euroeskualde mailako merkatu estrategikoa da.

Aurrean, Akitaniako programatzaileak Merkatura ekartzeaz gain, Iparraldeko Bilaka dantza Konpainiaren *Saio Zero* ikuskizuna programazioan egotea sustatu dugu, euskal dantza tradizionalaren interpretazio berritzaile bat egiten duen diziplinarteko lan hau Euroeskualde osoko programatzaileen eskura jarritz. Emanaldia azaoraren 20 asteazkenean 20:00etan Gayarre antzokian izan zen.

Gainera, Euroeskualdeko Kultur eta Sormen industriaren Lantaldeko bilera ospatu zen azaroaren 22 ostiralean 9:30etan Baluartean, zeinetan etxepare euskal institutuko kultur zuzendari Imanol Otaegik parte hartu zuen.

➤ **SOKA erakusketa Baionan**

Euskal dantzari buruzko erakusketa hau Baionan izan zen, Euskal Herriko artxibategian, 2019ko agorrilaren 30tik irailaren 22a arte.

Modu honetan, erakusketak bere ibilbidearekin jarraitzen du sortu zenetik 5 urte pasatu diren arren. Jadanik Euskadi, Nafarroa, Iparralde eta Akitaniako 20 lekutan izan da ikusgai.

➤ **Egitasmoaren komunikazio eta zabalpen lanak**

Aquitaine.eus weborria sortu genuenetik 2018an, etengabe elikatu dugu, bertan proiektuaren berri emanez eta burutzen diren ekintza ezberdinen albisteak zintzilikatuz, euskaraz, gaztelaniaz, eta frantsesez. Web-orriaren elikatzeaz Lide Hernando community manager-a arduratu da.

Aquitaine.eus proiektua zer den eta horren baitan burutzen diren jarduerak azaltzen dituen esku-orria Iruñeko 948 Merkatuan banatu genuen, eta ordutik aurrera, Nafarroako gobernuak, EKE-k eta Etxeparek esku-orrien hedapen orokorra egiten dute.

3.4.2. Mugaz gaineko lankidetzaren indartzea

Urtez urtez, Euskal kultur erakundeak lotura eta partaidetza berriak egiten ditu (2019an, « Loraldia » Festibalarekin), arte eta kultura harremanak indartzeko hegoaldearekin eta trukaketa artistikoak bultzatzeko.

Helburu berarekin, Mikel Erramouspé gure lehendakariak berretsi du Nafarroarekilako harremanen sustatzea eta nahi ukan du EKE-ko Administrazio kontseiluan Nafarroako Gobernuako ordezkari bat izan dadin. Hau 2018ko Biltzar nagusiak onartu du.

➤ **Gipuzkoako Aldundia - « Iparraldea bertan » zikloa**

Programazio hau urtero egiten da Koldo Michelena liburutegian eta hona 2019ko egitaraua:

- Martxoaren 7a - Mattin Lerrisa & taldea, diska berriaren kariatara
- Martxoaren 14a - J.M. Bedaxagar, J.M. Beltran, Ttittika Rekalt hirukotea, Caubet Chubuco Arhan txanbelariaren oroimen diska berriaren aurkezteko
- Martxoaren 21a - *Oroitzen naizeno* ikuskizuna (Maddi Zubeldia eta Bernadette Luro)
- Martxoaren 28a - Jon Itçaina musikariekin

➤ **« Loraldia » Festibala 2019**

Partaidetza berri bat egin da EKE eta « Loraldia » Festibalaren artean, Iparraldeko sorkuntzak oholatza gainera ekartzeko eta ekoizpenkidetza bultzatzeko.

Arte eszenikoen Festibala handi hori Bilbon egiten da urtero, eta 2019an iragan da martxoaren 12tik apirilaren 5a arte, leku ezberdinetan.

EKE-k hiru ekitaldi proposatu ditu:

- Belatza musika taldea, Azkuna arte zentroan, martxoaren 29an
- « Hitzenea » erakusketa, Oskar Alegria zinegilearen erakusketa, Bira! kultura zentroan
- Erakusketaren bisita gidatua, Oskar Alegria, Sustrai Colina eta Pantxoa Etchegoin-ekin batera

➤ **« GetxoFoto »**

Beste partaide bat: « Getxofoto » (Getxoko Irudiaren nazioarteko Festibala).

Lankideta honen helburua da Euskal Herriko paisaien inguruko irudi, argazki eta bideo instalazio garaikide bat ekoiztea.

Ederlana aurkeztua izanen da Getxoko « Iparra galdu gabe » deitu 2020ko Festibalean.

54. edizioko leloa « Osorik DA! » izan da.

« Durangoko azoka ekosistema berezi bat da », azpimarratu du Gerediaga elkarteko lehendakari den Nerea Mujicak. « Gune, babesle eta eragile ezberdinen artean antolatzen da. Sortzaile, hartzaile, argitaletxe, autoekoizle, diskoetxe eta bisitariok partekatzen dugu. Gazte, heldu, ume, ikasle, langile, erretiratu, kuadrilla... denona da. Literatura, musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, kultura digitala... hori dena osotasun bat da. »

Ekosistema honen irudi bat proposatu du Oier Zuñiga artista iruindarrak. Sortu duen kartelak lau zati bereizten ditu, eta bakoitzak Azokako ezaugarri bati erreferentzia egiten dio: burua (sormena), bularra (zabaldu-erakutsi), gerria (hartu eta eman), eta hankak (akzioa eta mugimendua).

Iparraldeko partaideen ekoizpenak naturalki sartu dira lelo honen ildoan eta 2019an ere, berritasun ugarirekin izan dira azokan. Urtero bezala, proposamen eta kultur ekoizpen ainitz aurkitu ahal izan dira: haur literatura, eleberriak, olerki bildumak, diskoak, etab.

2006an abiatu Gerediaga elkarte antolatzailearen eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetzari esker, Ipar Euskal Herriko ekoizpenak argiago agertu dira Durangoko azokan. Urtero azokan aurkeztuak diren berritasunen artean guti gorabehera %10a Iparraldeko ekoizpenak dira: 2019an, 40 berritasun aurkitu ahal izan dira Iparraldeko erakusmahaietan.

Iparraldeko partaide ezberdinak, gune batean elkartuak dira eta komunikazio berezi bat plantan emana da: prentsaurreko berezia Baionan eta Iparraldeko ekoizpenen katalogoa. Jakin behar da gainera Bilketaren bidez lurraldeko liburutegi guzietan hedatua izan dela katalogo hori bai eta erakasleen sareari IKAS pedagogia zentroaren bidez.

Iparraldeko egiturek mahaiaren alokailuarentzat prezio apalago bat ordaintzen dute eta EKE-k lan administratibo bat eramaten du. Horrez gain, EKE-k laguntza ekonomiko bat ekartzen die Iparraldeko egiturei bide eta hotel gastuentzat.

Iparraldeko egituren datuak:

- 9 erakusmahai
- 45 berritasun: 28 liburu, 3 liburu-disko, 13 disko, Seaskako egutegia
- 14 kultur ekitaldi: 5 aurkezpen, 4 kontzertu eta 5 proiektzio

2019an, Iparraldetik 10 egitura izan dira azokan: 7 argitaletxe, 2 diskoetxe eta bestelako egitura bat. Iparraldeko partaide guzti hauek, beste urteetan bezala, espazio bateratu batean elkartuak izan dira (Goienkale 83-91). Elkar argitaletxearen Iparraldeko adarra Elkar-en mahai nagusian ordezkaturik izan da.

Argitaletxeak: Gatuzain, IKAS, Maiatz, Matahami, Zortziko, ZTK/Belarri, Elkar

Diskoetxeak: Agorila, Saroia

Beste egitura mota: Iparraldeko ikastolak

14 kultura hitzordu:

- Ahotsenea – Zuzenekoak
 - * Abenduaren 5a
19:00 *Zugzwang*, Willis Drummond (Tabula Rasa Records & Like Litteraly)
 - * Abenduaren 6a
13:00 *Manez B*, Manez eta Kobreak (Kalapita produkzioak)

19:40 *Sargia*, Murgi (Ipar orratza diskak)

* Abenduaren 8a

16:20 *Ibilbide terapeutikoa*, Antton Larrandaburu eta bitxiloreak (Autoekoizpena)

• Ahotsenea – Solasaldiak

* Abenduaren 8a

17:00 *Mixu - Sustraiak*, travail collectif (Agorila)

17:30 *68. eta 69. Maiatz aldizkariak* (Maiatz)

• Saguganbara- Txiki eta handien plaza

* Abenduaren 6a

12:00 *Altxorraren bila!* (Elkar argitaletxea)

* Abenduaren 8a

11:00 *Aldo musikari!* (Matahami argitaletxea)

• Irudienea – Ikus-entzutekoen plaza

* Abenduaren 5a

17:00 *Gazteluak Zubi* dokumentalaren aurkezpena, Eneko Zuberogoitia, Ane Zuazubiskar eta Unai Portillo

18:00 *Hiru uhinak*, Loïc Legrand (Kanaldude eta Prima Luce)

19:00 *Ito*, film labur kolektiboa (Kanaldude)

20:00 *Tantaka* webseriearen estreinaldia, Idoia Rodriguez eta Joana Parot

* Abenduaren 6a

16:30 *Anti*, Josu Martinez (Adabaki ekoizpenak eta Gastibeltza filmak)

• Areto nagusia – Gogoetaren plaza

* Abenduaren 6a

12:00 *Euskal Herriko hiburuen gidak*. Parte hartzaileak: Lutxo Egia, Bea Salaberri, Nerea Azurmendi, Patxi Zubizarreta, Enrike Diez de Ultzurrun, Allande Sokarros eta Nora Arbelbide idazleak, eta Asisko Urmeneta eta Dom ilustratzaileak

4. KULTURA ELKARTE-KIDEAK SUSTENGATU ETA AHOLKATU

4.1. Laguntzak bultzatu

EKE-k eta Pirinio-Atlantikoetako DLA laguntza dispositiboa eramaten duen Profession Sport et Loisirs 64 egiturak elkarteei zuzendu jarraitze kolektiboa eta informazio bilkurak proposatu dituzte berriz ere 2019an. Hala nola, jarraitze kolektibo bat eta bi informazio gualdi antolatuak izan dira.

4.1.1. Informazio gualdien antolaketa

- Nola kudea bilkura bat eraginkortasunez? - 2019ko martxoaren 14an, 18etan - EKE-ren bilkura gelan, Uztaritzen - 11 parte hartzaile
- Elkarteen finantzamendua: diru-baliabide publiko esta pribatuen artean - 2019ko ekainaren 6an, 18etan - EKE-ren bilkura gelan, Uztaritzen - 8 parte hartzaile

4.1.2. Jarraitze kolektiboen antolaketa

Gaia: Egitasmo baten eredu ekonomikoa nola adierazi eta baloratu diru laguntza eskaera batentzat? Jarraitze honen helburua, egiturei tresna eta lan metodo eraginkorren eskaintzea izan da, bereziki diru kontuen alorrean, diru laguntza eskaera baten zerbitzuko.

7 elkartek parte hartu dute 2019ko jarraitze kolektiboan:

- Arregia elkarte
- Atelier d'artistes de la Milady elkarte
- Bilaka elkarte
- Itsas Begia elkarte
- Lapurtarrak elkarte
- Pays Basque au cœur elkarte
- Soinubila elkarte

Formakuntza ondoko maneran antolatua izan da:

- 3 egun kolektiboki (martxoaren 28, apirilaren 8 eta maiatzaren 2an)
- Egun erdi bat kolektiboki bildumaren egiteko (maiatzaren 4an)

Tarte kolektiboetaz gain, elkarte bakoitzak bakarkako egun erdi bat ukan du, haien proiektua sakontzeko:

- Maiatzaren 15ean – 9:30-12:30 | Pays Basque au cœur
- Maiatzaren 15ean – 14:00-17:30 | Arregia
- Maiatzaren 17an – 9:30-12:30 | Itsas Begia
- Maiatzaren 17an – 14:00-17:30 | Lapurtarrak
- Maiatzaren 21ean – 9:30-12:30 | Soinubila
- Maiatzaren 21ean – 14:00-17:30 | Ateliers d'artistes de la Milady
- Maiatzaren 24an – 9:30-12:30 | Bilaka

4.2. EKE-ko elkarte-kideen proiektuak lagundu

4.2.1. Sorkuntza proiektuak

> IKUSGARRIGINTZA

> Dantza

➤ IDB ELKARTEA

Federazioaren egitasmo orokorraren sostengatzea

Oroz gainetik bi alor sostengatuak: formakuntzarako eta transmisiorako sail ezberdinak, hedapena:

- Dantza sarean, Zabala modulua, EAC egitasmoak, Fofo, Dantzari Ttiki/Musikari Ttiki, Dantzari eguna, Harri Xuri dantzan, besteak beste.
- Federazioak kudeatzen dituen formakuntza tailerrak (2018/2019 – 2019/2020 urteak) Baionako Ravel Kontserbatorioan.

➤ ATELIER

Aterpean 2019

2019ko edizioan, bi egonaldi izan ziren:

- Amaïur Luluaga, uztailaren 1etik 4ra Biarritzeko Malandain Ballet-aren instalazioetan eta uztailaren 8tik 13ra Dantzagunean
- Ziomara Hormaetxe, uztailaren 1etik 4ra Biarritzeko Malandain Ballet-aren instalazioetan eta uztailaren 29tik agorrilaren 2ra Dantzagunean.

J-Aho! (Luluaga) eta *Ahotsak* (Hormaetxe) ikusgarrien lehen emanaldiak « Dantza Hirian » Festibalaren kari izan ziren, irailaren 15ean, 28an eta 29an, Erreterian, Baionan eta Hondarribian.

➤ BILAKA

Bilaka artista kolektiboaren egitasmo orokorraren laguntza

Musika eta koregrafia ikerketak, ohizko topaketak, sorkuntza eta hedapena, Euskal Herrian eta kanpoan. Hiru koreograforekin lan egiten du: Igor Calonge, Eneko Gil eta Martin Harriague.

➤ ELIRALE

O! sorkuntza eta ikusgarrien hedapena

EliralE Konpainiak 30 minutuko O! pieza koreografikoa sortu du. Obra hau domo batean iragaiten da eta ikusleek dantza hunkitzen, dantza dastatzen ahal dute. Lehen emanaldia 2020ko otsailaren 3an izan da, Sohütan. *Ninika*, *Artha* eta *Bihotz bi* piezak Frantzian et Hegoaldean aurkeztuak izan dira.

➤ MARITZULI

San Martin Ezpata dantza gertakarien sostengatzea

Dantza taldeekilako topaketak, tailerrak (2019ko irailaren 21ean, urriaren 12 eta 26an; ikusgarriak azaroaren 10ean, Biarritzen, eta omenaldia Philippe Oyhamburu dantzariari.

➤ TRAVERSÉE

Diagonalean zehar sorkuntza

Koregrafia idazketa eta egonaldiak iragan dira 2019an, eta segituko dute 2020an, sorkuntzaren hedapenarekin.

Koregrafia/dantza: Mizel Théret

> Antzerkia

➤ AXUT!

Zaldi urdina sorkuntza

Artedrama, Dejabu Panpin Laborategia eta Axut! kolektiboa. Ziburuko kolegioan otsailaren 11tik 15era eta Luhusoko Harri Xuri gelan maiatzaren 6tik 11ra egindako egonaldieri laguntza. Estrenaldia Luhusoko Harri Xuri gelan iragan da urriaren 11an.

➤ JOSTAKIN

Baratze Solas sorkuntza

Herriko besten kari, Makeako eta inguruetako haur eta gazteek Janine Urruty-k idatzi eta zuzendu Baratze solas antzezlanak aurkeztu zuten, uztailaren 18an, Mindegi gelan. Gaualdia Ufakan taldeak eman kontzertu batekin eta dantzaldi batekin bukatu zen.

➤ THÉÂTRE DES CHIMÈRES

Antzerki egonaldi artistikoarentzat laguntza

Antzerki egonaldi artistikoarentzat laguntza, Biarritzen (Découvertes gelan), 2019ko azaroaren 4etik 15era, Atx Teatroarentzat, Théâtre des Chimères konpainiak antolaturik.

Egitasmoa: *Kaskarot*, antzerki eta musika ikuskizuna, haurrentzat.

Idazlea: Gartxot Unsain Letona

Taula zuzendaritza: Inaki Ziarrusta (Atx Teatro)

Antzezleak: Maryse Urruty, Natxo Montero, Jon Koldo Vasquez, Gartxot Unsain Letona

> Musika eta kantua

➤ ALDUDARRAK

Eztitxu-Robles kantatuz sorkuntza

Egitasmoarentzat laguntza: ikuskizunaren prestakuntza.

➤ ARTEGIA

Geltoki baten potreta(k) – Myriam Ayçaguer-en egitasmo soinu-dun bat

Hendaia geltoki auzoko biztanleen hamabi bat grabaketa aurreikusten dira, heien potretak egiteko. Bost bat euskaraz edo euskal kulturaz egin dira. Grabaketen ekoizpenak 2019ko larrazkenean kausitu dira.

Hedapena Hendaia geltokiko Borderline Fabrika gunean eta Radiokultura irrati numerikoan proposatuko dira 2020ko bigarren sei hilabete zehar.

➤ **HEBENTIK**

Züek Heben 2019

Lurraldeko atlas geo-poetiko proiektuari laguntza. Soinu eta irudi bilketa baten bitartez, Mixel Etxekopar, Pierre Vissler, Jean-Christian Hirigoyen eta Patxi Laskarai artistek bertan bildu materialarekin bi ikusgarri aurkeztu dituzte bertako biztanleeri Gipuzkoako Ataun herrian martxoaren 9 eta 11a artean eta Arabako Izarra herrian maiatzaren 1a eta 3a artean.

➤ **KIRIBIL**

Odisea

Proiektu hau Sarako Biltzarraren bidez sustengatua izan da. Performantza artistiko-literario honetan, Pantxix Bidart-ek Homere-en *Odisea*-ren berrinterpretazio garaikidea proposatzen du, Euskal Herriari eta gaur egungo problematikei lotuz. Lehen emanaldia apirilaren 23an izan da Saran, Sarako Biltzarrak, Bilketak eta EKE-k antolatutako egun profesionalaren kari.

> **Gertakari erritualak**

➤ **BELZUNTZE**

Aiherrako kabalkada

Aiherrako kabalkada irailaren 22an eta 29an aurkeztua izan zen. Ekitaldi honek jende anitz mobilizatu zuen, oholta gaínean (25 antzerkilari, 12 musikari, 86 dantzari, 6 makilari, Antzuolako 20 dantzari), bai eta agertokietarik kanpo (16 dendari, 83 laguntzaile). Publikoa kopuru handian etorri zen eta bi emanaldiak txarteldegia itxirik jokatu zituzten. Proiektu honi esker, herritarren arteko loturak azkartu ziren eta dinamika eder bat sortu zen.

➤ **ITSASUARRAK**

Itsasuko kabalkada

2019ko agorrilaren 25ean, Itsasun. Dantza, musika, dantza, antzerkia eta bertsularitza.

➤ **MANEX GOIHENETXE KULTUR ETXEA**

Donibaneko suak Angelun ekitaldiarentzat laguntza

2019ko ekainaren 15ean: haurren xokoa, suen erritualak, kontzertuak (QQ Bird, Zortzi uneek, etab.).

➤ **OSKAXE ZOLA**

Domingo Garat pastoralean parte hartzea

2019ko uztailaren 28an eta agorrilaren 4an, Pagolan, Frantxoa Caset idazlea.

> Gai askotakoa

➤ **HIRUAK BAT**

Hiru zitxun sorkuntza

2019ko agorrilaren 23 eta 30ean, Ainiza-Monjolosen: hiru herrien kondakizuna, tokiko eta belaunaldi ezberdinetako herritarrek emanik.

➤ **KIRIBIL**

Bidean egonaldi sorkuntza

Bidean Harriola Zahar Etxeko, Xitoak haurtzaingegiko eta Kiribil Konpainiako kideen arteko eraikitako egitasmoa da. Hiriburuko Harriola Zahar Etxean Kiribil Konpainiako artistak Xitoak haurtzandegiko haurrekin eta Zahar Etxeko biztanleekin bildu dira maiatzaren 13tik 17ra. Egonaldiaren bukaeran Zahar Etxearen jangelan Konpainiako Amaia Hennebutte, Charlotte Guilharetze, Paxkal Indo eta Jean-Philippe Leremboure artistek partekatutako harremanak eskaini dituzte egitasmoaren parte hartzaile guziei antzerki mota oso hunkigarri baten bitartez.

➤ **LATSARRIA**

Labeguerie gogoan sorkuntzarentzat laguntza

Ikusgarri berezia, dantza, musika, bertsulari, etab.

Dantza prestakuntzak 2019ko udazkenean hasi dira, Pascale Lazkano koreografoa delarik. Bi ikuskizun iraganen dira 2020ko ekainaren 13 eta 14ean, Kanbon.

➤ **LILIA**

Bertsolariaren abezederioa sorkuntzarentzat laguntza

Idazlea: Pier-Paul Berzaitz – dantza, musika, bertsularitza, grafismoa, etab. Ideien lanketa eta prestakuntza artistikoaren abiapena: 2019an, sorkuntza 2020ko udazkenean.

➤ **MENDI ONDOAN**

AnKanDan sorkuntza

Manex Pagolaren obran oinarrituz, Mendi Ondoan elkarteak ikusgarri bat sortu zuen. Dantza, antzerkia eta kantua nahasten zituen ikusgarri honetan, 26 kantarik, 19 dantzarik eta 10 antzerkilarik parte hartu zuten. Emanaldia urriaren 26an iragan zen, Hodialdean gelan, 220 ikusleren aitzinean.

➤ **ZARPAI BANDA**

Sorkuntzari laguntza

Ikusgarri & ipui ikusgarria, Zarpai banda elkartean 50garren urteburu kari, Hendaiaiko elkarte eta artista ezberdinekin – kantua, dantza, musika, etab. EKE-k ipui sorkuntzarentzat ekartzen du laguntza (ipuiaren idazlea: Koldo Amestoy – taula zuzendaria: Troupe des Vents et Marées).

> Arte bisualak

➤ **ARCAD**

« Euskal Herria-Gaspésie » deitu egitasmoa

Bi arte bisualen alorreko artisten arteko behakoak, bat Québecekoa, bestea Euskal Herrikoa. Egitasmo hau bi urtez garatuko da: 2020 eta 2021ean (artisten hautaketa, egonaldi artistikoak, etab.)

➤ **HATZA**

« Hatzak/Traces » erakusketa

Elkartearen 11. urteurrenaren kari, Hatza kolektiboak gertakari eder bat antolatu du Baionan, urriaren 12tik azaroaren 16ra: « hatza » gaia jorratzen duen erakusketa kolektibo bat eta topaketa ezberdinak:

- urriaren 12an: estreinaldia Odei Barroso bertsolariarekin
- urriaren 25ean: *Euskal Herriko hatzak* solasa/mintzaldia, Claude Labatekin
- azaroaren 7an: *Irudiak, notak eta hitzak* Chris Martineau biola-jole, Lufti Jakfar irakurle eta 7 argazkilarien parte hartzearekin

➤ **KILIKA**

Olentzero

Urriaren 14tik 26ra, Kilika Konpainia Maison du 3bis-en lokalean instalatu zen, Olentzeroren iduriarekin txontxongilo bat sortzeko asmoarekin. Gérôme Martrenchard txontxongilokariak, Isakutu dendariak eta Fabienne Astruc Kilika Konpainiako kideak osatu zuten talde artistikoa. 300 pertsona hurbildu ziren konpainiak proposatu zituen tailerretara. Performantza ibiltaria abenduaren 21ean iragan zen Baionako karriketan.

➤ **UDA LEKU**

Bideo tailerra

Elkarteko animatzaileek kudeaturik eta ikus-entzunezko sektoreko profesional batek gidaturik, haur talde batek bideo tailer honetan parte hartu du trailer baten sortzeko. Honek « Zineskola » dispositiboaren kari erakutsi da, eskolei *Grufaloo*, *Harpetarra* eta *Zarafa* proposatutako filma programatik abiatuturik.

> Haur antzerkia

➤ **KIRIBIL**

Alderantziz sorkuntzari laguntza

Alderantziz sorkuntzarekin, Konpainiak generoaren gaia tratatzen du triptiko baten bitartez ttikientzat (3-5 urte), haurrentzat (6-12 urte) eta gazteentzat (12-16 urte) egonaldi batzuen bidez. Errenteriko Dejabu Konpainiaren Ainara Gurrutxagak taula zuzendaritza segurtatzen du, Amaia Hennebutte eta Charlotte Guilharetze oholtzan izanen direlarik. Sorkuntzaren estreinaldia Senpereko Larreko ikusgarri gelan aurreikusia da 2020ko ekainaren goiti.

> LITERATURA

➤ **HEMENDIK**

« Hemendik » deitu egitasmo kulturalen bigarren partearentzat laguntza

Euskal Herrian sortu eta ekoiztu 50 produktu ikonikoen historiak liburuaren argitalpena, erakusketaren hedapena.

➤ **LITTORAL BASQUE - ATALAIA**

Idazle egonaldia « Nekatoenean »

Euskal idazle baten hilabeteko egonaldiarentzat (2019ko azaroan) laguntza: « Nekatoenea » egoitzan. Epaimahaiak hautatu du: Jokin Mitxelena.

➤ **OLENTZEROREN LAGUNAK**

Laguntza euskal kulturaren bulgarizazio lanabesen sorreran

Oloentzero pertsonairen inguruko liburuxka bat, ludikoa eta interaktiboa (ikerketa lanak 2019an hasirik, liburua 2020ko eguberriko agertuko da).

➤ **PESTACLES ET COMPAGNIE**

Liburuen etxolak

Euskarazko liburu eta albumak proposatzen dituzten etxola batzu osatzen hasi da Pestacles et compagnie elkarteak. Lurraldeko mediatekei eta haurtzaro egiturei zuzendu instalazio ibiltari horrek 6 gai ezberdin lantzen ditu: emozioak, lehen irakaskuntzak, lehen aurkikuntzak, elkar-bizitza, lehen bizi galderak eta natura. Sorkuntza ateratzea 2019an aurreikusia zen, azkenean, 2020an izanen da.

> LABEL DISKOGRAFIKOA

➤ **MOÏ MOÏ RECORDS**

LUMI taldearen *Itzal zikinak* lehen LP-ari sustengua

EKE-ren label diskografikoari sustenguaren kari, Moï Moï Records labelaren LUMI elektro-pop bikotearen *Itzal zikinak* lehen diskoa lagundu da. Nahia Zubeldiak (ahotsa / gitarra) eta Manu Matthysek (makinetan) dute taldea osatzen. Diskoa 2019ko ekainaren 27an argitaratu da.

4.2.2. Hedapen proiektuak

> FESTIBALAK

➤ **ABOTIA**

« Xiru » 30. « Xiru » Festibala

Gotaine Irabarne eta Altzürükü apirilaren 19, 20 eta 21ean iraun diren emanaldi horiei eman zaie laguntza: *Kabaret Berria Xiru 2019* Titika Rekalt, Mikel Martinez eta Hor Hor taldearekin, « Ihes ederra » gualdia Aeham Ahmad, François Rossé, Kattalin Arrayet, Mixel Etxekopar, Christian Vieussens, Valerio Di Giovanni eta Paula Parrarekin, *Basoa* Dantzaz Konpainiak emanik Bernard Combi eta Beñat Axiarirekin.

➤ **ACCENTS DU SUD**

« Hestiv'Oc »

2019ko agorrilaren 22tik 25era, Pauen: musika, kantu, dantza, erakusketa, etab., euskal taldeen parte hartzearekin: En Tol Sarmiento, So.K, Manez eta Kobreak.

➤ **AKELARRE**

30. « Txontxongilo » Festibala

Bi eguneko Festibalak zazpi ikusgarri eta parte hartzeko bost tailer proposatu zituen. Eguraldi txarra izan arren, karparen instalatzeari esker, emaldi guziak atxikiak izan ziren. 30. edizioak 900 ikusle bildu zituen.

➤ **BIARRITZ CULTURE**

« Bi Harriz Lau Xori »

Gaztetxean eta Colisée gelan martxoaren 21 eta 24a artean Axut! kolektiboaren *Zazpi senideko* antzezlanak eta Nerea Martinezen *Biraka* dantza emanaldia lagundu dira.

➤ **BIL XOKOA**

« Musikaren Egüna »

2019ko ekainaren 7, 8 eta 9an, Urdinarben: kontzertuak, antzerkia, erakusketak, etab.

➤ **EIHARTZEA**

« Zinegin »

« Zinegin » Festibalaren 8. edizioa azaroaren 21etik 23ra iragan da Hazparnen. 6 film hautatuak izan dira eta hainbat film laburrek osatu dituzten egitaraua. Proiektzioez gain, Super 8 eta soinu grabaketa tailerrak proposatuak izan dira. Bestalde, Kliklap lehiaketa pixka bat aldatu da: 48 ordutan, parte hartu duten 3 taldeek film labur bat idatzi, filmatu eta muntatu behar izan dute.

➤ **EZIN ASEAK**

« Koruak »

2019ko urriaren 26tik azaroaren 2a arte Baionan; besteak beste izan dira Euskal Herriko abesbatzak eta mundukoak.

➤ **EZKANDRAI**

« Errobiko Festibala »

2019ko uztailaren 18tik 21ra Itsasun; besteak beste izan da: *Burdina* sorkuntza, Mursego, J.C. Irigoyen, Adriana Bilbao, Beñat eta Julen Achiary, Joseba Irazoki, etab.

« Etiopikoak »

2019ko martxoaren 20tik 23ra, Baionan: Ablaye Cissoko, Maddi Oihenart, Julen Achiary, *Kalaportu* ikuskizuna, Bernard Lubat, Brilili, Beñat Achiary, Kimilia Georgiako abesbatza besteak beste.

➤ **GAU ARGI**

« Gauargi »

Gauargi Festibala baitan, laguntza euskal dantza eta musikaren inguruko ekitaldien antolakuntzari. Uztailaren 17tik 23a arte, Xalbador ikastetxe eta Azpeitiako ikastolak egin erakusketak ikusgai izan dira. Uztailaren 21ean, euskal kulturaren inguruko eguna izan da.

➤ **HERRI SOINU**

« Hartzaro »

« Hartzaro » Festibala 2019ko otsailaren 15etik martxoaren 5era iragan zen, Uztaritzen. Hainbat kontzertu (Manez eta Kobreak, Patcha mama, Xeiki, Gaita Luze, Uztaritzeko txistulariak, Saltoka) eta dantza ikusgarriak (*Aukeran 20 urte, Hariz Hari, Topa-k, Üda batez, Bedatse batez, Izartxo dantza taldea*) antolatua izan dira. « Itzaletik argira » erakusketa Baionako Euskal Museoan instalatua izan da eta Pierre Hairak mintzaldi bat eskaini du Uztaritzeko dantza eta musika praktikei buruz.

« Hartza Altzoan »

Martxoaren 22tik 24ra, « Hartza Altzoan » Festibala ospatu dute Ezpeletan. Artista batzuen laguntzarekin, musika eta dantza eskolak, bai eta ikastetxeak izan dira ekitaldien protagonista nagusiak: kalejirak, kontzertuak, ikusgarriak, etab.

« Herri Uzta »

« Herri Uzta » Festibala 2019ko urriaren 10etik 13ra iragan da eta Tolosa eta Uztaritze hirien birazkatzea ezarri dute ohoretan. Mutxikoaren egunaren 41. edizioa urriaren 13an antolatu dute Arrangoitzen. Musika animazioa ugari proposatu dituzte (Gaita Luze, Tolosako eta Uztaritzeko gaiteroak, Uztaritzeko txistulariak, Uztaritzeko eta Ezpeletako txarangak, Txakatuk), bai eta dantza ikusgarriak (*Plazaz, Tio Teronen semeak, Udaberri dantza taldea, TopaNoka, dantzaldia Kiki Bordatxorekin*).

➤ **MOÏ MOÏ**

« Baleapop »

Donibane Lohizunen agorrilaren 14tik 18ra, festibaleko antolatzaileek tokiko hainbat egitasmo eta artista aurkeztu ditu ekitaldiaren azken edizioako programazio aberatsan, EKE-k sustengaturik, hala nola: « Txotx », musika elektronikoak eta euskal sukaldaritza dastatze esperientzia, « Territoires » musika elektroniko taldea eta bere Iparraldearen lurraldeko kartografia soinuduna, LUMI, Odei, Panda Valium, Radiator musika taldeak baita ere Manon Boulart eta Benjamin Artola sortzaileen obrak. Festibalaren istorioan publiko jendetsuenetarikoa bildu da azken agurra emateko gisan.

➤ MUNDUKO MUSIKEN ETXEA

« Haizebegi »

2019ko urriaren 10etik 20era, Baionan. Hainbat ekitaldiren artean:

Haratago laukoteak gomitatzan du Wassim Ibrahim (Syria) musikaria – Julen Achiary-rekin egonaldi artistiko bat, Baionan, urriaren 11an; Josu Rekalde (Arte ederretako fakultatea – Bilbon) artistak sortu *Robotentzako Opera*, urriaren 13an, Arte Hirigunean, Baionan.

➤ USOPOP

« Usopop »

Sarako Lizarrietako lepoan Festibalaren azken edizioa ospatu da maiatzaren 25 eta 26an. Lisäbo, Joseba Irazoki eta lagunak, Anari eta Madeleine musika taldeak sustatuak izan dira. Nahiz eta eguraldi oso txarra izan, ikusle ainitz bildu dira azken kontzertuetaz gozatzeko.

➤ XARNEGU EGUNA

« Xarnegu Eguna »

Aurtengo edizioa Xarnegu lurralde zabalean iraun da. Koldo Amestoy kondalariaren *In vino fabula* ipuina Ahurtiko herrian aurkeztu da apirilaren 30ean eta Jour de Fête Konpainiaren *Bidea* emanaldia Bastidako karriketan publiko zabal bati proposatu da maiatzaren 4ean.

> HURBILEKO EKINTZA KULTURALAK

> Literatura

➤ AKELARRE

« 15. Literatur mintzaldia »

Akelarreko literatur taldeak Koldo Izagirreren *Franco hil zuten egunak* aztertu zuen. Idazlearen beste liburu batzu irakurtzeaz gain, testuak idatzi zituzten. Ekainaren 1ean, mintzaldi baten egitera gonbidatu zuten.

« 10. ikurraldi publikoa »

Argia aldizkariarekin partaidetzan, Akelarrek bere 10. irakurraldi publikoa antolatu zuen ekainaren 5ean. 68 irakurlek parte hartu zuten eta emanaldia zuzenean zabaldu zen streaming-en bidez. Argiak ale berezi bat argitaratu zuen irakurriko ziren testu guziekin eta dohain banatu zituen irakurleen artean.

➤ BILTZAR DES ÉCRIVAINS DU PAYS BASQUE

Sarako Biltzarra

Sarako Biltzarraren 36. edizioan, bi aldaketa garrantzitsu izan dira: igandeko eguna utzi eta asteartean egun profesional bat antolatu. Idazleei eta aurkezpenei zuzendu astelehenak guti gorabehera 1 000 pertsona bildu ditu eta 78 erakusmahaiak okupatuak izan dira. Liburuaren aurkezpenak karpan iragan dira eta haurrentzat, Kiribil Konpainiak animazioak proposatu ditu.

Lehen aldiz, Sarako Biltzarraren kari egun profesional bat antolatua izan da Euskal literatura helduentzat gaiari buruz. Egitaraua Biletak, Sarako Biltzarrak eta Euskal kultur erakundeak prestatu dute eta hogeita hamar bat profesional hurbildu dira.

➤ **BORDERLINE FABRIKA**

Projet « Mokadua » egitasmoa

« Mokadua » Hendaiko ondare gastronomikoaren balorapen proiektua da geltokiko biztanleen testigantzetan oinarriturrik. Egitasmoaren aurkezpena herriko gaztetxean antolatu da azaroaren 30ean errezeta batzuen dastaketa eta bilketa aurkezpenaren bidez, publiko jendetsu batekin. Elkarteko kideak abenduan liburu baten ekoizpena prestatzen hasi dira 2020ko ekaina aldera argitarazteko asmoz.

➤ **HATSA**

Hatsaren poesia

2019ko apirilaren 7an, Hatsa elkarteak 21. olerki bilduma aurkeztu du, 120 idatzi biltzen dituena. Horren kari, Euskal Herriko hainbat tokiko olerkariak bildu dira Larraldean. Irakurketak, kantuak, *Begi ninien koreografia* film laburraren proiektzioa iragan dira.

➤ **LIBREPLUME**

Euskaraz irakur

Urtearen zehar, Libreplume elkarteak haur eta burasoei zuzendu tailerrak proposatzen ditu, euskarazko irakurketa bultzatzeko:

- Nini irakurleak tailerrak, 0-3 urteko haurrentzat | hilabetearen behin - orotara 40 haur eta 43 heldu
- Pijama gaualdiak, 4 urtetik goiti | hilabetearen behin - orotara 52 haur eta 40 heldu
- Siropa irakurketa tailerrak | asteazkenetan - orotara 5 haur eta 3 heldu. Lokal aldaketaren ondotik,

tailer hori uztea erabaki dute.

Animazio horiek hiru zatitan partekatuak dira: guraso eta hurrei ongi etorria, liburu batzu elkarrekin begiratzea, kantuak eta kantu-jolasak bukatzeko.

Le Petit Bouquenville

2019ko edizioa martxoaren 26tik 30era iragan da, Baionan. Eider Eibar ilustratzailearekin tailerrak proposatuak izan dira, bai eta Iñaki Zubeldia idazlearekin. Familiek ekitaldi ezberdinetan parte hartu dute: Maryse Urrutyekin irakurketa, eszena irekiak, marrazki lehiaketa, erakusketa, irakurketa espazioa, etab.

➤ **MAIATZ**

Euskal literaturaren hedapena

2019an Maiatz elkarteak literatur topaketa ugari antolatu ditu. Maiatzaren 22an, 35. literatur solasaldien kari, Eider Rodriguez eta Itxaro Borda idazleak gonbidatuak izan dira. Maiatzaren 21 eta 30ean, Iparralde eta Hegoaldeko idazleekin literatur topaketak antolatuak izan dira Baionan eta Iruñean. Hainbat literatur azokatan parte hartzeaz gain (Baigorri, Sara, Senpere, Zarautz, Oloron, Bastida, Donibane Lohizune, Orthez, Paue, Durango), elkarteak 2019ko beritasunak aurkeztu ditu. Rennes eta Paueko hizkuntza gutietako literaturari buruzko topaketetan parte hartu du.

➤ **ZABALIK**

« Otsail ostegunak »

Otsaileko lau ostegunetan, Zabalik elkarteak gai ezberdinei buruzko mintzaldiak proposatu zituen:

- *Irri ixtoriak, gure ahozko literaturatik*, Maialen Moreno Zubeldia | 35 parte hartzaile
- *Etxera bidean*, Juan Carlos Etxegoien « Xamar » | 47 parte hartzaile

- *Angula ustelak*, Ainhoa Intxaurrendieta | 28 parte hartzaile
- *ZADa, bizi duten ahotik*, Iñaki Etxeleku | 42 parte hartzaile

> Bertsularitza

➤ BERTSULARIEN LAGUNAK

Bertsularitza sustatu eta garatu

EKE-k Bertsularien Lagunak elkarteak laguntzen du, urte osoan zehar, bertsularitzaren sustatzen eta garatzen, ekimen hauen bidez:

- Bertsu-saioen laguntzea (bertsulariak ordaintzeko diru-laguntza eskainiz), Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberoko eremuetan Bertsularien Lagunak antolatuak edo bertze elkarteek antolatzen dituztenak.
- Lehiaketa eta xapelketen antolakuntzen bidez. 2019an Bertsularien Lagunak elkarteak Taldekako Xilabaren 2. edizioa antolatu du 2018ko lehen edizioaren arrakasta ikusita. Irailaren 20tik azaroaren 16 arte, 9 taldeetan banatuak ziren 34 bertsulari lehiatu dira 12 saiotan. Ez otoi pentsa (Maddi Ane eta Josu Txoperena, Miren eta Gorka Artetxe) atera dira garaile, Hasta la 2toria (Elixabet Etxandi, Lur eta Hodei Renteria, Maddi Sarasua eta Leire Laskarai) taldearekin jokatu finalean Isturitzen. 2019an aurreikusia zen Hernandorena Sariketa, 2020ko udaberrian antolatua izanen da.
- Saioen grabatzeko bideo-kamera eta materiala, elkarteari prestatua izan zaiona 2011tik, dohain emana izan zaio 2019ko otsailaren 16an.
- Bertsularitzaren inguruko ekitaldien komunikazioa EKE-ko webgunearen eta sare sozialen bidez.

> Mintzaldiak

➤ SÜAZIA

Euskal kulturari lotu mintzaldi ezberdinen antolaketan parte hartzea

10 gertakari. Mintzalarietan bertzeak bertze: J.Louis Davant, Philippe Etchegoyhen, Kepa Altonaga, Audrey Hoc, Myriam Aycaguer, Asisko Urmeneta, etab.

> Arte bisualak eta ikus-entzunezkoak

➤ CINÉMA ET CULTURES

Distribution et diffusion du cinéma basque

- Fermin Muguruzaren *Black is Beltza* filmaren banaketa

Filmaren promozio lanari eta filmegilearen biraren antolaketari laguntza emana izan da, hedapena Iparraldean eta hainbat herrietan garatzeko (Angoulême, Saint-Ouen, Marseila, Parise, Bordale, Lyon, Montreuil, Saint-Etienne, Montpellier, Avignon, Blois, Caen, Dijon, La Rochelle, Nîmes, Orléans, Poitiers, Villeneuve-d'Ascq edo Tournefeuille).

Ikusle kopurua pentsatu baino ttikiagoa izan da 2 137 pertsonekin. Aldiz, Fermin Muguruzaren presentzian aurkeztu gaualdiak oso jendetsuak izan dira, ikuslegoaren parte haundiena bilduz. Filmaren zirkulazioa Frantzian bikaina izan da 34 zinema gelek 156 emanaldi proposatu baitituzte.

- Telmo Esnalen *Dantza* filmaren banaketa

Filmaren promozio lana eta filmegilearen biraren antolaketari laguntza emana izan da bereziki Iparraldeko zinema geletan ibiltzeko. Estrenaldiak agorrilaren 20tik gora hasi dira. Filmaren ateratzea Iparraldeko eta Frantziako geletan irailaren 4etik goiti abiatu da Paris, Montpellier, Paue edo Toulouse hirietatik pasatuz besteak beste. Orotara 193 emanaldi antolatu dira 5 644 ikusle bilduz, zenbaki bikainak proposatutako filmaren berezitasuna kontutan harturik.

➤ **ARGIAN**

Argazkiaren Biltzarra

2019ko argazki lehiaketaren gaia irakurketa izan da. Lehiaketaz gain, zortzi erakusketa instalatuak izan dira herriko hainbat gelatan, eta kanpoan, 28 dorreri esker, 84 argazki ikusgai izan dira. Irailaren 8an, « Zatozte zuen irriarekin » ekitaldia proposatu dute Donibane Garaziko merkatuan. Argian elkarteko eta AFTELAE-ko kideek nahi izan duten helduen, nerabeen eta haurren argazkiak hartu dituzte.

➤ **BEGIRADA**

Laguntza argazkilarien erakusketentzat

Taillerrak, animazioak, eskolekin harremanak, besteak beste Nahia Garat argazkilariaren inguruan: 2019ko ekainaren 1etik irailaren 30era, Donapaukeko toki ezberdinetan.

➤ **EUSKAL IRRATIAK**

« Kultur alea » et « Kantuz kantu » irrati-emankizunen sostengatzea

Euskal kulturaren ekintza ezberdinak aipatzeko eta euskal kantuaren hedapena baloratzeko.

➤ **ITZAL AKTIBOA**

« Euskaldunen erretratoak Amerika mendebaldean » erakusketa

« Euskaldunen erretratoak Amerika mendebaldean » deitu erakusketa aurkeztu du Zöe Bray artistak, euskal diasporari lotu argazki, marrazki eta bideoekin. Erakusketa Baionako Euskal Museoan egon da 2019ko urriaren 1etik azaroaren 17ra. Ondotik, ibiltaritza bat izanen da.

➤ **LURRAMA**

Obra baten sorkuntza

2019ko azaroaren 8, 9 eta 10ean, Biarritzeko Irati azokan: euskal artearen erakustea azoka denboran, sorkuntza baten bitartez.

> Musika eta kantua

➤ **AEK**

Kalaportu ikusgarriako laguntza

Michel Portal antzokia – Baiona – 2019ko martxoaren 23an

Joseba Sarrionaindia idazle eta poetaren unibertsoaren irudikatzeko, Audience musika taldearekin hainbat artista bildu dira bere testuak kantatzeko eta errateko hala nola Ines Osinaga, Joseba Irazoki, Beñat Achiary, Dana, Rafa Rueda, Miren Gaztañaga eta Ander Lipus.

➤ ARROKA

« 40 akordeoilari »

« 40 akordeioloari » ekitaldian parte hartzea, 2019ko apirilaren 7an, Biarritzen.

➤ EUSKAL KANTU TXAPELKETA

Iparraldeko Haur kantu txapelketarentzat laguntza

6-15 urte arteko haurrentzat, bakarka, binazka edo taldeka – prestakuntza 2019an hasia eta kanporaketak 2020ko apirilan, Xiberoan, Baxenabarren eta Lapurdin.

➤ FOYER RURAL DENENA

Kantaldi bat eta erakusketa baten antolaketa

Elkarteak bi hitzordu antolatu ditu Aiziritzen:

- azaroaren 10ean: kantaldia Menditarrak, Jon Itzaina eta Amikuze kantuz taldearekin
- urtarrilaren 19an: erakusketa Jacques Luquet, Mauricette Stevenot, Miren Laxague eta Francis Larran artistekin.

➤ FSE LA CITADELLE

« Nafarroan gaindi »

